



Moda gehigarria

Gehigarri berezia → 11-20

IGANTZI → 24

N-121-Ako arriskua
murritzeko neurri eske

DONEZTEBE → 28

Emakumeen lasterketa
taldea nahi du Errekak

LEITZA → 34

Aurrera eta Talo Eguna
asteburu honetarako

BAZTAN → 38

Elbeteko Mutildantzari
buruz iritzi kontrajarriak

1999-2007 | Eskualdeko 80 ondasun bere izenean jarri ditu Artzapezpikutzak


Hogei urteko epea dago Artzapezpikutzak inmatrikulatu dituen ondasunen kontrako erreklamazioa egiteko



Nafarroako Ondarearen Aldeko
Plataformaren arabera, Iruñeko
Artzapezpikutzak Nafarroa osoko
1.087 ondasun baino gehiago erregistratu ditu
bere izenean prozedura berezi bat baliatuz
eta inolako jabetza-titulurik erakutsi beharrik gabe.
«Nafarroan eman den espoliatorik handiena» dela
salatu bidenabar, udal eta kontzejuei eskatzen die
«artzapezpikutzak oraindik inmatrikulatu ez dituen
ondasunak udal-kontzejuen izenean jartzeko».
Argazkian Urdazubiko Salbatore eliza.

ERREPORTAJEA → 3-5

ARGAZKIA: ONDIKOL



Modesta HUARTE | Bera

ARKUPEAK → 35

48 bazkide omen-
duko ditu aurten
Arkupeak elkarte-
ak. Omenduetako
bat Modesta
Huarte izanen da,
maiatzaren 17an
100 urte bete
dituen beratarra.



KIROLA → 44

Juan Carlos
Garrok irabazi du
Euskadiko XCM
txapelketa,
Master 40
kategorian.


ZOZKETAK → 52



Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58**
telefonora







13
igandea



HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA:
"Kortxea Doktoarearen
abenturak... eta Musika
Tresnen Fabrika" (Kiliklon Erolzpenak)
3-9 urte - 17:30 - Kultur Etxean
Sarrera: 5€ (Sarrerarekin batera opari bat)
Antolatzailea: Berako Kultur Batzordea

18
ortziera



HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA:
"Miru, eta bere lagunak"
(Kiliklon Erolzpenak)
2-7 urte bitartekoentzat
18:00 - Herri Liburutegian

20
igandea

ANTZERKIA:
"Esperando a la Inglesa"
(Emaitza Antzerki Taldea)
18:30 - Kultur Etxean - Gaztelaniaz

26
larunbata

LIZUNIAGAKO IGOERA
14 urtetik goitikoentzat
17:00 - Gure Txokoa - 4,9 km
Bazkideak: 3€ | Ez bazkideak: 5€
Izen-ematea: www.kirolprobak.com
Antolatzailea: Gure Txokoa

27
igandea

LURRAREN EGUNA:
Eskulangileen azoka, barazkien erakusketa, gasna eta sagardo lehiaketa, kalejira, argazki erakusketa, bertsolariak, dantzariak, berbera...



26
larunbata

BERA KANTARI
19:00
filekuetatik hasita

Bataidien gainera informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakogenda.net




Orain, acQrn
Quality Language Learning

-en, zure hizkuntza-ikastaroez gain edozein ikasgaietako laguntza-eskolak egiten ahal dituzu



Lehen Hezkuntzatik Batxilergoa bitarteko eskolak

Etorri eta infoma zaitez gure ordutegiez eta tarifa bereziez

Koskontako bidea, 11, behea - LESAKA Tel. 948 637 135 E-mail: info@acornlanguages.com

www.acornlanguages.com






GIZARTEA → ONDASUNAK EZTABAIDAREN ERDIAN

1999tik 2007ra 80 ondasun inmatrikulatu ditu Artzapezpikutzak eskualdean

Hipoteka Legean oinarrituta Elizak zuzenean paratzen ahal ditu ondasunak bere izenean

Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Leitza, Bartzan, Zugarramurdi eta Urdazubín elizak, ermitak, lur-eremu eta iratzetxe-lexuak, zuhaiztiak, biltegiak eta basilika bat inmatrikulatu ditu Artzapezpikutzak

bere izenean, eta Nafarroa osoan 1.087. Horren aurka, ondasunak herriarenak direla iritzita, Nafarroako Ondarearen Aldeko Plataforma eta Udalen Batzordea sortu ziren duela sei urte. Dagoeneko Nafarroa-

ko 150 udal eta kontzejutik gora dira Plataformari atxikimendua adierazi diotenak. Bide beretik, Artzapezpikutzak oraindik bere gain hartu ez dituen ondasunak bere izenean jartzeko deia egin diete udalei.

G. PIKABEA

1999ko abenduaren 14tik 2007ko abuztuaren 14ra bitartean, 80 ondasun inmatrikulatu zituen Iruñeko Artzapezpikutzak eskualdean, eraikinerlijosoak batzuk eta ondasun arruntak gainerakoak. Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Leitza, Bartzan, Zugarramurdi eta Urdazubiko 44 eliza, 22 ermita, sei lur-eremu, hiru iratzetxe, bi zuhaizti, bi biltegi eta basilika bat bere izenean erregistratu zituen, Hipoteka Legearen 206. artikulua bazeen. Legea Francoren denborakoa da, 1946koa, eta honek ai-

zinetik erregistratu gabeko ondasun higiezin baten jabe egiteko aukera eman zion Elizari, gurtzarako lekuak izan ezik. Baina Espainiako Gobernuak 1998an aldatu egin zuen hori. Jose Maria Aznar presidente zela, dekretu batekin elizak, ermitak eta horrelakoak ere inmatrikulatzeko aukera jarri zuen.

2007an kasualitatez jakin zen Elizaren izenean ez zeuden ondasunak bere izenean erregistratzen ari zela, zinegotzi bat ondasun batzuk herriaren izenean jartzera joan zenean. Eta orduan sortu zen Nafarroako Ondarearen Alde-

ko Plataforma, ondasunak herriarenak direla defendatzeko. Bide beretik, udalen mugimendu haundia sortu zen, eta Nafarroako Ondarearen Aldeko Udalen Batzordea ere lanean hasi zen.

DATUA

12

UDAL ESKUALDEAN

Nafarroako Ondarearen Aldeko Plataformari atxikimendua adierazi diotenak

Duela gutti Udalen Batzorde hau berritua izan da, eta Unai Lako Agoizko alkatea izendatu du te lehendakari. Berak azaldu digu, Plataforma eta Udalen Batzordea «norabide berean» ari direla lanean, «baina bakoitza lan esparru desberdinean. Plataformak helburu orokorrak jorratzen ditu, gizarteari begirakoak eta Udalen Batzordeak lan instituzionala bultzatzen du, Parlamentuan edota udal eta kontzejuetan». Hamalau bat herritako alkate eta zinegotzi dira Udalen Batzordea dinamizatzen ari direnak. Gaur egun, Nafarroako

150 udal eta kontzeju inguruk atxikimendua adierazia diote Plataformari eta tartean badira eskualdekoak: Arantzaz, Beintza-Labaien, Bera, Donamaria, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Leitza, Oiz, Sunbilla eta Urroz. «Kolore guztietako udalak, eta Nafarroako zonalde guztietakoak», dio Lakok. «Jendeak eta udalek ulertu dute ez dela Elizaren kontrako plataforma edo ekimen bat, denon den ondasunak aberats baten aldekoa baizik».

Baina aldi berean, Artzapezpikutzak bere izenean paratutako ondasunak saltzen, alokatzen,

Pello BORDA Urdazubiko Salbatore eliza eta Alkerdiko kaperaz solasean

«Mendeetan guk zaindu eta mantendu ditugun eliza eta kaperak ez dira gureak»

«Lehenago, elizan lan egin edo dirua ematen genuenean, gure elizari laguntzen genion, baina orain ez. Azken aldian, Artzapezpikutzaren elizari lagundu diogu». Hala salatu du Pello Borda urdazubiarrok. Urdazubiko Salbatore eliza eta Alkerdiko kaperak, auzolanean, dirua eta eskulana emanez, herritarrek konpondu dituztela dio, eta hortaz, 2004az geroztik Artzapezpikutzaren izenean dauden eliza eta ermita herritarrei itzultzeko eskatzen du: «urdazubiarrok aski maitea dugun Alkerdiko kaperak duela 14 urte berritu genuen herritarrok, auzolanean, lana eginez eta dirua emanez. Salbatore eliza, berriz, orain dela 45 urte zaharberritu zen, hau ere auzolanean. Azken bi urteetan berriz egin dira konponketak. Herritar aunitzek kolaboratu genuen garbiketa eta berteze lanetan. Horrez gain, herrita-

rrek 150.000 euro eman genituen obra egiteko, eta berteze 240.000 euro Elizak biderratu zituen, Udalak egin zion erosketa baten diruarekin. Udalak, 240.000 eurotan, lehengo aroztegia zena, apezaren baratzetza eta etxea eskuratzen zituen, hau da, Udalak hiru ondasun erosi zituen Alkerdiko kaperari, berteze herritar aunitzek herriarenak zirela kontsideratzen ditugunak». Bordaren irudiko, «lehengo eta oraingo obren artean desberdintasun bat badago: lehen gurea zenean egiten genuen lan eta gurea zen zerbaiteko ematen genuen dirua, eta orain ez. Artzapezpikutzak eliza eta kaperak 2004ko buruilarren 29an inmatrikulatu zituen. Inork ez zigun sekula erran inmatrikulazio horiek egin zirenik, hedabideen bidez jakin genuen. Orain, ordea, apezak herritarrez oroitu da eta obran eko-



Alkerdiko kaperak, Urdazubín

nomikoki laguntza eman genezan etxetara eskutitzak bidali zituen». Urdazubiarren eskaera argia da: «mende eta urteetan eliza eta ermita zaindu eta mantendu dituen jendearekiko errespetuagatik, 2004ko buruilarren 29aren aitzineko egotzera berean uztea eliza eta kaperak, hau da, herritarren esku».

Berako Legia karrikako lur-eremuaren kasua

«Nondik nora eta zergatik inmatrikulatu ditu Artzapezpikutzak lur hauek?»

2007ko otsailaren 22an Berako Legia karrikan dagoen 5.050 metro koadroko lur eremua bere izenean paratu zuen Artzapezpikutzak, Jesusen Bihotza ikastetxea eta inguruko lurak. Baina eskriturak eskuetan dituztela, Berako Erauste eta Xuri borda baserrietakoek diote lur eremu hori ez dagokiola Elizari, eta bere garaian neskontzako eskola erlijiosoa izateko utzia izan zela.

Notario aitzinean sinatutako 1898ko eskrituretan ageri denez, Erauste baserriko Francisca Irazoki Endarak –Xuri bordako Fermin Endara Legia zenaren emaztea– donazio moduan, karitateko mojen eskola eta inguruko lurak Artzapezpikutzari utzi zizkion, eskola erlijioso batekin segitzeko. Nesken eskola izateko eta klaseak mojek emateko baldin-

tzarekin egin zen donazioa. Noizbait eskola erlijiosoa izateari utziko balio, eta gehenez 25 urteko epean hala segituko balu, utzitako ondasunak Erauste eta Xuri borda baserrikoen esku gelditu beharko luketeela ere biltzen du eskriturak. Azken urteotan mojarik egon ez den garaia izan diren arren, gaur egun badira.

Nafarroan egin diren inmatrikulazio gehienak 1999tik 2004ra bitartean egin ziren, baina kasu hau 2007an egin zen, mojarik egon ez zen garaian, Nafarroako Ondarearen Aldeko Plataforma sortu zen urtean eta Artzapezpikutza ondasunak bere izenean paratzen ari zela zabaltzen hasi zenean.

Erauste eta Xuri bordakoek Artzapezpikutzak lur eremu hauek «nondik nora eta zergatik» inmatrikulatu dituen galdetzen



Berako Legia karrika.

dute. Abokatuarekin ere ibili dira, eta eskrituretan garbi gelditzen dela aitortu die, baina kontua zail dagoela. Eskrituretan donazioa lruñeko erregistroko zein tomotan bildu zen ere paratzen duen arren, artxiboa ez da kontserbatzen, artxibo berriagoak bakarrik dituztelako gordeak.

sarrerak kobratzen... segitzen du. «Adibide aunitz egon daitezke. Elizaren izenean ez daude elizak edo baselizak bakarrik, lur eremuak, pisuak, etxabeak... ere aurkitzen ditugu eta horiek berak erabiltzen ditu aunitzetan, eta bertze batzuetan alokatu edota saltzen ditu». Bere hitzetan, «herritarren diruarekin eta lanarekin eta instituzio publikoen diru laguntzekin ordaindu diren ondasunak haien onura pribatuetarako ari dira saltzen edo alokatzen».

Nafarroan 1.087 ondasun paratu ditu Elizak bere izenean. Ondasun horiek berreskuratzea «ez dalan erraza izanen» Lakoren ustez, baina garbi du «indartsu jarraitu behar dugula». Gaineratu digunez, «prozesu luzea eta konplexua da, eta aunitzetan herri bakoitzean ezaugarri desberdinak topatzen dira. Horregatik herri bakoitzak bere bidea egin beharko du, baina bidaia-erri bat amankomunean martxan jartzen saiatu behar dugu». Ondasunak berreskuratzea lan erraza ez dela

izanen iritzita, Artzapezpikutzak oraindik bere gain hartu ez dituen ondasunak bere izenean jartzeko deia eginga die Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak udalei. Honen harira, zera azaldu digu Batzordeko lehendakariak: «garrantzitsua da herri guztietangai honen inguruan lan egiteko prest dagoen jendea aurkitzea. Izan ere, erregistrora jo behar da eta han Elizaren izenean egon daitezkeen ondareak zein diren galdetu. Ez badituzte inmatrikulatu, herriaren izenean jarri behar dira, eta aldiz, gu baino azkarrago joan badira eta Elizaren izenean badaude, Plataformari jakinarazi eta gaia salatu». Ondasunak udalen izenean paratzeko Plataformarekin harremanetan jartzeko gomendatu du Lakok.

Bertetik, udaletara mozioa ere bidalia dute Udalen Batzordetik, Nafarroako Gobernuari herri bakoitzaren ondasunen jatorria eta eskubideen inguruko informazio juridikoa eta historikoa emateko eskatuz. Oraingoan, 60 udalek

onartu dute mozioa. «Oso pozik gaude izan duen erantzunarekin», dio Agoizko alkateak. «Udal aunitz dira mozioa babestu dutenak. Oraindik ere batzuetan proposamena jorratzen ari dira». Behin atxikimenduak batuta, Parlamentura babes eske jotzeko asmoa dute. «udalerriei informazio juridiko eta

historikoa eskaintzeko eta Eliza Katolikoak bere izenean jarritako ondasunak berreskuratu nahi dituzten udal eta kontzejuei laguntza emateko eskatuko diogu Nafarroako Gobernuari». Horrez gain, Nafarroako Gobernuak diru publikoarekin egiten dituen inbertsioen berri ematea ere nahi dute: «Eliza Ka-

tolikoak bere izenean jarritako ondare nafarra konpondu, hobetu eta zaintzeko, ehunekotan ongi zehaztuz kostu osoaren zenbatekoa den Nafarroako Gobernuaren, Estatuaren eta toki-ko erakundeen ekarpen publikoa». Lakoren irudiko, «Nafarroako herritarrek eskubidea dute Elizak pribatizaturiko on-

ARTZAPEZPIKUTZAK BERE IZENEAN PARATU DITUEN ONDASUNAK

HERRIA	ONDASUNAK	NOIZTIK
Arantzaz	Ermita	2000/08/18
	Jasokunde Parrokia	2004/09/29
Bera	San Esteban Parrokia	2004/09/29
	San Martin ermita	2004/09/29
	Mercedes ermita	2004/09/29
	Legia karrikan lur eremua	2007/02/22
Etxalar	Santakruz ermita	2001/06/22
	Santa Maria Parrokia	2004/09/29
Igantziz	San Migel Parrokia	2004/09/29
	San Martin Parrokia	2004/11/04
Lesaka	Lursaila (PG UE-20)	2004/11/04
	San Anton ermita	2004/11/04
Arano	San Roke ermita	1999/12/14
	San Martin Parrokia	2004/09/29
Areso	Jasokunde Parrokia	-
	Santakruz ermita	-
	Eliza ondoan lur eremua	-
Goizueta	San Lazaro ermita	1999/12/14
	San Anton ermita	1999/12/14
	Jasokunde Parrokia	2004/09/29
Leitza	San Migel Parrokia	-
	Santakruz ermita	-

HELBURUA

«Jendeak eta udalek ulertu dute ez dela Elizaren kontrako ekimena, denona den ondare aberats baten aldekoa baizik»

GOBERNUARI ESKAERA

«Herri-ondarearen jatorri eta eskubideen informazio juridiko eta historikoa eskaintzea eta ondasunak berreskuratu nahi dituzten udal eta kontzejuei laguntzea eskatuko diogu Gobernuari»

Unai LAKO

Nafarroako Ondarearen Aldeko Udalen Batzordeko lehendakaria

dareak zer punturaino ordaintzen eta baimentzen dituzten jakiteko».

Honen harira, aipatu, Espainiako Gobernuak datuen babesa baliatuz, 1998tik Elizak inmatrikulatu dituen ondasunen kopurua ematea ukatu diola Ezker Anitzari. Kastaoren Legeak datu hori publiko egitea galarazten duela arrazoitu du.

'ESPOLIAZIO HAUNDIENA'

«Nafarroan eman den espoliazio haundienaren aitzinean gaude». Halaxe uste du Udalen Batzordeko lehendakaria. Elizak inmatrikulatu dituen ondasunen artean ez baitira erlijiorako erabiltzen direnak bakarrik: «denetarik dago. Zelaiak, hile-riak, frontoiak, etxebizitzak, etxabeak...». Eta zertarako nahi ote ditu ondasun horiek? Lakoren irudiko, «botere kontua» izan daiteke: «ahalik eta ondasun gehiago batu, indarra erakusteko». Zera gaineratu digu: «aunitzetan, bere izenean jarritako ondare aunitz erabat hondatuta daude. Orduan, dirurik ez dutela argudiatuz, Udalari eta Gobernuari konpontzeko diru lagun-

tza eskatzen dio. Ez du batere zentzurik. Herriaren esfortzuarekin egindako eraikinak herriarenak dira. Ez dira ondasun pribatuak, publikoak baizik».

PRIBILEGIOAK KENTZEKO ESKAERA

Nafarroako ondarearen defentsan, Eliza Katolikoari ondasunak bere izenean jartzeko pribilegioa ematen dien Hipoteka Legearen 206. artikulua baliogabetzeko eskatua dute udalek. Baina ondasunak bere izenean jartzekoaz gain, bertze eskubide edo pribilegio batzuk ere badi-tu Eliza Katolikoak. Zerga salbuespenak, adibidez. Horren aurka, Elizak ondasun higiezin zerga ordaintzea onartu du Nafarroako Parlamentuak, baina Espainiako Gobernuak Konstituzionalera eraman du auzia, arau horrek Estatuak Elizarekin dituen konpromisoak ez dituela betetzen argudiatuz. Lakok Plataformaren iritziarekin bat egin du: «herriko bertze edozein jabek egiten duen bezala, Elizak ere bere ondasunengatik zergak ordaindu beharko lituzke. Baita EIOZ zerga ere (Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga), haien jabetzetan obrak eginez gero, hori ordaintzeaz ere libratzen direlako. Berrito ere, Estatuaren eta Elizaren arteko konplizitatea ikusten da hemen, historian behin baino gehiagotan ikusi den bezala».

ETA ORAIN ZER?

Hemendik aitzinera lan «haundia» egin beharko dela dio Agoitzeko alkateak, «oso instituzio haundi eta boteretsuaren aitzinean gaudelako». Bere hitzetan, «gizartea eta instituzioak gehiago aktibatu behar ditugu eta gaiak duen garrantzia konturatu behar du-

gu. Ez dugu denbora aunitzik galdu behar, hamar urteren bueltan, inmatrikulazio hauek behin betikoak bihurtu daitez-

keelako». Izan ere, ondasun bat lehendabiziko aldiz erregistratzen denean, hogeituroteko epea dago erreklamatzeko.

BIBLIOGRAFIA:

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma, *Escándalo monumental*. www.plataforma-ekimena.org

ARTZAPEZPIKUTZAK BERE IZENEAN PARATU DITUEN ONDASUNAK

HERRIA	ONDASUNAK	NOIZTIK
Almandoz	San Pedro eliza	2001/12/18
	Santa Barbara ermita	1999/12/14
Amaiur	Jasokunde Parrokia	2001/12/18
Aniz	Jasokunde Parrokia	2002/04/10
Arizkun	San Kristobal ermita	2000/04/26
	San Juan Bautista Parrokia	2001/12/18
Arraioz	Jasokunde Parrokia	2001/12/18
	San Fermin ermita	2000/04/26
Azpilkueta	Santiago ermita	2000/04/26
	San Andres Parrokia	2004/09/29
	San Francisco Jabier Parrokia	2004/09/29
Berroeta	San Martin Parrokia	2001/12/18
	Zuhaiztia Lupegin	2004/09/29
Elbete	Santa Barbara ermita	2000/04/26
	Santakruz Parrokia	2002/04/10
	Santa Engrazi ermita	2000/04/26
Elizondo	San Pedro ermita	2000/04/26
	Santiago Parrokia	2004/09/29
	Lur eremua Erabetan	2004/09/29
Erratzu	San Pedro Parrokia	2004/09/29
	Lur eremua Elizan	2004/09/29
Gartzain	San Martin Parrokia	2002/04/10
	Oilargo basilika	2002/04/10
Irurita	Salvatore Parrokia	2004/09/29
Lekaroz	San Bartolome Parrokia	2004/09/29
Oronoz-Mugairi	Jasokunde Parrokia	2002/04/10
	San Andres Parrokia	2000/10/02
Ziga	San Lorentzo Parrokia	2001/12/18
	San Markos ermita	2000/04/26
Zozaia	Parrokia	2004/09/20
Beintza-Labaien	San Pedro Parrokia	2004/09/29
	San Markos ermita	1999/12/14
	San Markos ermitaren ondoko lurra	1999/12/14
Donamaria-Gaztelu	Jasokunde Parrokia	2004/11/03
	Zuhaiztia Elizondoan	2007/08/14
	Santo Domingo Parrokia	2004/11/03
Doneztebe	San Pedro Parrokia	2004/09/29
	Hiru iratze sail (guztira 9.600m²)	2004/09/29
	San Migel ermita	1999/12/14
Elgorriaga	San Pedro Parrokia	2004/09/29
Eratsun	San Estanislao Parrokia	2004/11/04
Ezkurra	Jasokunde Parrokia	2004/11/04
Ituren	San Martin Parrokia	2004/09/29
Oiz	Jaione Parrokia	2004/11/03
Saldias	San Juan Bautista Parrokia	2001/06/23
Sunbilla	San Juan Bautista Parrokia	2004/09/29
Urroz	San Migel Parrokia	2004/11/03
	Bi biltegi Leurtzan	2004/11/03
Zubietza	Jasokunde Parrokia	2004/09/29
Legasa	San Katalina ermita	2004/09/29
Narbarte	San Andres Parrokia	2004/09/29
Oieregi	San Juan Bautista Parrokia	2004/09/20
Urdazubi	Salvatore Parrokia	2004/09/29
	San Esteban ermita	2004/09/29
Zugarramurdi	Jasokunde Parrokia	2004/09/29



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

ETBegiak

Zapa... Egun batetik bertzera pertsonaiak ain-geru eta deabru bihurtzen dituen telesail agortezina. Zapa... Luxuzko etxe dotoreak erakusten dituen saioa, jendea etxetik botatzen ari diren sasoiak girotzeko. Zapa... Patagonian edo gaztelu artean dabilen lehiakide martiri har-jaleak eta inguruko telemaniakoak. Zapa... Ezker gantxo bikaina eta tantoooo! Zapa... Bizpahiru-lau aldiz eman duten euskal lurtar bisitari batek euskal famatuari egin bisita. Zapa... Egoera politikoaren txuleta, buelta eta buelta, erre eta kiskali, ikatz bihurtu duten hizlari eta politikariak. Zapa... Gooooool, athleticen goooooola! Zapa... Euskal umorea eta espantukeria karkarka jartzen dituen zintzur berria... Zapa... marrazki bizidunak euskaraz ezin ikus... Ez da bertzeak baino hobea, ezta hainbat zabor-kate bezain nardagarria ere. Bertzerik ez dugu eta geuretako egina da. Horrexegatik, geure herrialde guzietan ikusi beharko litzateke, baina ezin edo ez nahi. Eta bertan zein Europa osoan satellite bidezko aukera berriz zabaldu beharko litzateke, bagaren seinale eta geure 'zapa' aukeran izateko.

Ezpala
Aitor AROTZENA

Mutil-dantza eta gizon-proba

Asteburu berean ikusia gure herri eta auzoetako bestetan: Herriko alkate bat oihuka uxatua gizasemeekin batera dantzatu nahi izategatik batean eta emakumeak eta gizonak elkarrekin lehian harriari tiraka bertzean. Izenari erreparatuz, bixtan da tradizioaren eta betikotasunaren izenean, biak arraren eremu izan direla. Baina kirolean egin dena ezinezkoa al da dantzan lortzea?

Nabarmentzekoak



Juan Carlos GARRO
Euskadiko XCM txapeldun

Hamar urte zituen konpetitu gabe, baina Euskadiko XCM txapelketa Lesakan jokatzen zenez, prestatu eta Master40 kategoriako txapeldun izatea lortu zuen Berako txirrindulariak.



Montxo BLANCO
Urdazubiko sukaldaria


Piriniar arrazako azien-da lehiaketaren baitan antolatutako Gastronomia ibilbideko sari nagusia, eskaintza onena duen jatetxeari emandakoa jaso du Montxo Ostatuak.



Ion ZEBERIO
Euskal Herriko txapeldun

Mendi bizikletan ez ezik, errepidean ere Euskal Herriko txapeldun ditugu Elizondoko bi txirrindulari beterano. Ion Zeberio senior mailan eta Patxi Meoki master50 kategorian.

Atzera begira → 2003.10.02 / TTIPI-TTAPA 359 zbk.



Eusebio Maritorea omendu zuen Arkupeak elkarteak

Zigan sortu eta Leitza bizi den Eusebio Maritorea omendu zuen Arkupeak elkarteak duela hamar urte. Leitza delegatua eta elkarteko lehendakari ordea zen orduan. Maritorenak TTIPI-TTAPAri jakinarazi zioenez, hamabi urte lehenago sartua zen Leitza Arkupeak elkarteak: «Lehenago Ezkurraraino joaten ginen autobusa hartzera. Orain 225 bazkide inguru ditugu Leitza». Erretiratuak elkarteak satisfakzio eta poz aunitz ematen zizkiola ere aipatu zigun: Aktibidade bat eman dit eta jendearekin harremana estutzeko modua, jendearekin ibiltzen zara, kasik bidai guzietara gaten naiz... Niretako arras positiboa izan da».



Argitaratzailea Ttiipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttiipi.net**

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irupe eta Itxaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Zer du ospatzeko Euskal Herriak Senperen urriaren 22an?

Mixel MENDIBOURE (Lapurdi 1609 Elkarteak)

Herriarrak gaskoi lekuetarat uxatuak izan ziren, Mattin Bidarten bertsoak lekuko. Lehen aldian Sara, Azkain, Itsasu, Ainhoako... jendea iraultza denboran deportatua izan zen. Napoleonen armadaren 70.000 aitzindari eta soldadu, bai 100.000 etsai aliatu, gure lurretan egon eta borrokatu ziren. Pasatzean, herri gehienak txirtxikatuak, suntsituak izan ziren, jendea miseria gorrian utziz. Etxeak erreak edo deseginak, arto sailak eta pentzeak zaldiek janak, belar eta bihiak ebatsiak, oihanak hondatuak, zubiak lurrean. Jendea eskale bilakatu zen, hitz horrek erran nahi duen guziarekin. Frantses armadaren egitateak, orduko dokumentuen arabera, izan ziren ahalkin-garriak.

Zer ospatuko da?

Bataila galduak: Urdazuri, Heleta, Garruzekoak... Garai haietako aitzindari eta soldaduen modura jantzirik, beren lehengo aitzinakoei egin zutena? Egindako desmasiak omenduko dituzte? Zertarako ez ere horiek berek etxeei su eman, zaldiak libratu arto landetan, ebasketak antolatu? Gure arbasoek jasan zutena oroitzeko, jantzi militarrez egindako ekitaldiek desoratzen dituzte, beraieitaz eta gutaz, beraien ondokoetaz trufatzen dira.

Gure arbasoek ikus izan balute egin hondamendiak nola itzulikatzen, moldatzen dituzten, burutik maingu behar dela izan erranen zuketen. Konparaketak konparaketa, inori ez zaio burutik pasatzen Gernikaren bonbardaketa ospatzea, Hitlerren eta Francoren armadako jantzi ederrekin...

Euskal gizarteak ez du hobetik, ez da hobetundun, ez zen parte hartzaile gerla hortan.

Bi inperioen arteko gerla zen, eta, gu, erdi erdian harrapatu gintuzten.

Barkamena bai, zor zaigula, egin desmasiengatik baina armadek eta estatuak gutitan aitorzen duten hori, ez dira kasik sekulan makurtzen.

Lapurdi 1609 elkarteak historiaren bertze parteak, gorde nahi den hura, dominaren ifrentzua agertu du irailaren 24an egin den prentsaineakoan.

«Gure arbasoek ikus izan balute egin hondamendiak nola itzulikatzen, moldatzen dituzten, burutik maingu behar dela izan erranen zuketen. Konparaketak konparaketa, inori ez zaio burutik pasatzen Gernikaren bonbardaketa ospatzea, Hitlerren eta Francoren armadako jantzi ederrekin...»

Beldurra

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Beldurra arma politiko eraginkorra izan da beti. Klase dominatzaileek beti erabili dute haien boterea bermatzeko. Beldur fisikoa, beldur mediatikoa, beldur ekonomikoa... Gaur bertan, puri-purian dago beldurraren politika. Lana galduko duzu, protestatzen baduzu egurra emanen dizugu, kriminal bat zarela erranen dugu. Bazen garai bat, ordea, goitin zeudene ere beldurra sentitzen zutena. 1917ko urrian, Errusian, tsar ustelen mendetako erregealdiaren ondoren ezarri zen gobernu kapitalista bota zuten boltxebikeek. Nekazariak, langileak eta soldaduek osatutako sobietek hartu zuten boterea ekialdeko herrialde erraldoian (soldaduak, bai, herritarrei tiro egin beharrean herritarrekin elkar hartuta. Arraroa, ez?). Ondoren etorri zenak hamaika eztabaidatuko ematen du gaur egun ere: ez zela paradisuak sortu, milioika jende hil zela, inkoherentzia batean bizi zen kasta burokratiko batek agindu zuela... Nahi duzuen, baina 1917an gertatu zenak zazpi hamarkadatarako beldurra sorrarazi zien gaur egun dauzkagun agintarien aitzinekoei. Sobietar Batasuneko ereduak gauza bat ekarri zuela: ez multinazionalik, ez enpresariarik, ez lur jabeirik, ez bankaririk ez zuen sistema bat sortu zuen. Erraneko jendea, belaunalditan eta belaunalditan bu-
rua makurtuta bizi behar izan zena, haien gainetik pasatu zelako. Europa mendebaldeko eta Ipar Amerikako estatuak izutu egin ziren, hango jende umilak eredu bat lortu zuelako bere bizi maila hobetzeko. Eta, beldur horren eraginez, bi erreakzio izan zituzten gure latitudetako boteretsuek: bata, ezkerren aurka egurra ematea (Nafarroako oraingo agintarien zaharrek 1936an egin zutena, adibidez), eta, bertzea, gutxieneko zerbitzu batzuk eskaintzea, Ongizate Estatua deitu zitzaiona, langileak sobera keja ez zitezen. Eta zazpi hamarkadatan horrekin moldatu ziren beldur hori kontzeko, 1989an historia aldatu zen arte. Orduetik, aunitz hazi zaizkigu multinazionalak, enpresarioak, lur jabeak eta bankariak. Beldurra galtzen joan dira, eta, orain, krisiaren aitzakiapean, harropuzkeria guzia ateratzen digute. Berriz ere gibelera begiratu, 1917ra, galdera bat egitea beharrezkoa da: jende normala ez al litzateke hobeki biziko Merkelik, Draghirik, Botinik eta Opus Deirik gabe? Erantzunak argia iduri du. Alan Moore komikigilearen arkatzetik sortutako 'V for Vendetta' heroi maskaradunak erraten du bezala: "Herritarrek ez liokete beldurrik izan behar agintariei. Agintariak izan beharko liokete beldurra herritarrei".

«Beldur horren eraginez, bi erreakzio izan zituzten boteretsuek: bata, ezkerren aurka egurra ematea eta bertzea, gutxieneko zerbitzu batzuk eskaintzea, 'Ongizate Estatua', langileak sobera keja ez zitezen»

Irakurleak mintzo

Horrelako gertakizunak ikustea lotsamangarria da

Begoña ALBERRO ETXANDI

Gaur egun horrelako gertakizunak ikustea lotsamangarra iduritzen zait, ni aspalditik mutildantzaria naiz nere herrian eta ez dut inongo arazorik izan. Gauza bera pasatu da zortzikoarekin eta iparraldeko muxikoekin, garai batean gizonen dantza bakarra zen, nola ez emakumea ez zen etxetik ateratzen!. Non dago berdintasuna eta errespetua??? Akaso emakumeak gizonak baino gutxiago gara?

Hondarribiarekin parekotasunak

Asier GARAIALDE
(Hondarribia)

Aupa! Ni Hondarribiako naiz eta zoritxarrez parekotasun oso haundiak ikusten ditut mutildantzaren gaia eta alardearen gaiaren artean; Betidanik ekitaldi publikoak izan direnak pribatizatu nahia, emakumeen partehartzearen bazterketa tradizionaltasunaren izenean, irainak partehartze saiokeretan, e.a.

Baztandarrak, izan zaitezte Behe Bidasoakook izan garena baino azkar eta adimentsuagoak eta moldatu ekitaldiak garai berrietara modu naturalean. Ez itzazue baztertu eta iraindu mutildantzan



Bota bertsoa

Jokin PINATXO (Berako Bertso Eskola)

Istripuak

Suge beltzean gora ta behera denok ibili ohi gara marra zurien arrisku denak suma gabe beharbada hamaika aldiz esan digute "oso arriskutsua da" gazte bizitza senti nahi dugu heldu arte helmugara ez dugu ikusten bihotz barruan guk jaso arte hozkada.

Autoa hartu eta segika pozoina beti atzetik lagun, famili, edota zuri begira hurbil-hurbiletik mila istorio, gertakizunak inguruan aspalditik jende ugari joan zaigu eta gogoan dauzkatz beti nik betikoak ta betirakoak diot bihotz-bihotzetik.

parte hartu nahi duten auzokideak, nahiz emakume edo nahiz gizon izan, hori bait da betiko ohiturak modu egokian irauten jarraitu ditzaten modu bakarra.

Erredakzioaren oharra

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Elbeteko Mutildantzan gertatutakoaren ondorengotik, Elbeteko Herriak eta Besta Komisioak, Plazara Dantzara Herri Ekimenak eta dantzan

parte hartu zutenek argitaratutako komunikatu eta agiriak (osorik www.ttipi.net webgunean) Baztango berrietan laburbildu ditugu (38. orria). Hemen, gure webgunean argitaratutako albisteari egin dako iruzkinak bildu ditugu bakarrik.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

TXARTELAK

Kartulina berezia 400gr. + 2 alde koloretan + BEZa barne

500 94€
bisita txartel



100 txartel **74€** 250 txartel **90€**
1000 txartel **116€**

AURREZTU
BULEGOKO
materialean

Koskontako bidea 7, 1 | LESAKA
948 635 458 | kulturkari@ttipi.net
www.ttipi.net www.kulturkari.com



Prentsatik bildutakoak



«Alde batetik, niri krisia arras ongi datorrit. Eliteko enpresak erre xamarak daude nerekin, azken aldian udalek ez baitute 8.000 edo 10.000 euro balio duten festibalak ordaintzeko dirurik eta nahiago dute ni bezalako jendearekin lan egin, elitean egon naizela eta prezio eskurgarria eskaintzen dut. Baina nere familian eta kuadrillan somatu da krisiaren eragina».

Mikel GOÑI
Oronoz-Mugairiko pilotaria
D. NOTICIAS 2013.09.23



«Jendea erabat gurekin zegoen errodojean, garrantzitsua izan zen Nafarroan grabatzea, egiazko lekuan eta herriko jendearekin, larrua bertan uzten zutelako. Zuk erran: 'Belarditik lasterka egin behar duzue!' eta mundu guziak egiten du, behin. Hamalagarrengoa pentsatzen hasten dira: 'Hau zer da? zenbat ordaindu behar didate?'».

Alex DE LA IGLESIA
Zinema zuzendaria
ON 2013.09.22

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Leitzako neska alaie eta lotsati xamarra naizela esango nuke.

Zein afizio dituzu?

Haundiena musika. Kontserbatorioan ikasten hasi naiz eta asteburuetan musika talde batean ere aritzen naiz. Euskal dantzak eta igeri egitea ere asko gustatzen zait.

Aurrerako dantza taldean aritzen zara...

13 urte nituela hasi nintzen talde txikian eta helduenean, duela 2 urte. Betidanik gustatu izan zaizkit euskal dantzak, familiarik ere heldu zait afizioa nere aita dantzako irakaslea izana baita.

Kostatzen da taldea mantetzea?

Gero eta zailagoa da talde guztia entsaioetarako biltzea, gehienak kanpoan ikasten durgulako. Baina tira, gogoia eduki ezker guztia lortzen da.

Dantzan sueltoan edo eutsian gustorago?

Egia



esan ez zait gehiegi inporta bat edo bestea... Hala ere, eutsian dantzatzeko ezagutzen dudak batekin nahiago.

Emanaldien artean zein duzu gustokoena?

Polittena Leitzako pestetan dantzatzeko da, ilusioa egiten du plaza-ateratzeak, nahiz eta urduri egon.

Nola bizi duzu Aurrera eguna?

Goizen dantza saioa izaten dugu eta gero beste ekitaldiak ikusten ditut. Gauean ez da jende asko ibiltzen, baino herriko giroa denez, polita izaten da.

Zer du Leitzak faltan eta zer soberan?

Leitzan askotan autobusak botatzen ditut faltan... oso gutxi pasatzen dira, eta ondorioz nahitaezkoa da kotxea herritik ateratzeko. Soberan ez nuke jakingo zer esan...

Leitzako txoko bat?

Leitzako mendiak gustatzen zaizkit eta batez ere santa kruzeko bidea. Arratsaldeak pasatzeko berriz Peritza taberna, gazte asko biltzen garelako bertan.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Oraingoz nahiago dut oraina bizi. Hala ere, esperantza ez da galdu behar.

Amets bat?

Musikari eta irakasle on bat izatea lortzea eta ditudan proiektuak garatzea. Ea laister guztiak betetzen diren!

Garazi ERBITI → Leitzako gaztea

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

J. RAMOS
zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

zalain
JATEZEA - RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

udana
salazones
UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabillioa - LESAKA - Tfn: 948 631 536 - Fax: 948 631 550

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun
ttipi-ttapa
(0034) 948 63 54 58

GIZARTEA

NATURA → BAZTANEN, BERTIZEN ETA LEURTZAN HAINBAT EKITALDI PRESTATU DITUZTE

Nafarroako hegaztien IV. jardunaldiak antolatu dituzte asteotarako

‘Hegaztiak eta paisaia’ argazki erakusketa ikusgai dago Iruritako Jauregian

TTIPI-TTAPA

Nafarroako hegaztien laugarren jardunaldiak antolatu dituzte Baztan-Bidasoaldeko hainbat erakundek.

Hasteko irailaren 27tik urriaren 13ra “Hegaztiak eta paisaia” izeneko argazki erakusketak ikusgai dago Iruritako Jauregian, Iñaki Atxa eta Itxusi Elkarteko argazkilarien lanekin. 19:00etatik 21:00etara irekitzen ditu atea Iruritako Jauregiak.

Urriaren 4an, ortziral arratsaldeko 6:30ean hegaztien jardunaldien inaugurazioa egingen da Elizondoko Museo Etnografikoan. 19:00etan, “Sonidos de la naturaleza” solasaldia eskainiko du Eloisa Matheuk leku berean.



ARGAZKIA: INAKI ATXA

Hegaztiak eta paisaiari buruzko argazki ikusgarriak ageri dira Iruritako erakusketan.

Urriaren 5ean, larunbat goizeko 10:30ean bisita egingen da Bertizko Natur Parkera, Mirame! Navarra al Natural taldeko Joaquín Araujo eta Juan Goñirekin. 19:00etan, “Arte y conservación” hitzaldia eskainiko du Juan Varelak. 21:30ean afora izanen da Iruritako Olari jatetxean eta 23:00etan, “Aves” izeneko olerki eta musika

errezitaldia Patricia Furlong eta Edorta Muruarekin Iruritako Jauregian.

MARRAZKETA TAILERRA JUAN VARELAREKIN

Urriaren 6an, igande goizeko 10:30ean, Juan Varelak emanen duen marrazketa tailerra hasiko da Iruritako Jauregian. Izen-ematea dorreaelkartera@gmail.com helbide elektronikoaren bidez edo 652 162103 telefonora deituz ginen behar da. 11:00etan, Leurtzako urtegi, “Poesía y música en la naturaleza” natura irtenaldia egingen da Patricia Furlong eta Edorta Muruarekin. Iruritako Jauregian, “Éticas y Poéticas del Paisaje” hitzaldia emanen du Joaquín Araujok 18:30ean.

Hurrengo asteburu-

an ere bertze zenbait ekitaldi prestatu dituzte.

NATURA IRTENALDIAK ETA KABI-KUTXEN TAILERRAK

Urriaren 12an, larunbat goizeko 8:00etan hegazti askeen argazkitailerra egingen da Iruritako Jauregian. 10:30ean, Elizondoko Merkatuko Plazatik abiatuta Mikel Mugirorekin irtenaldi ornitologikoa egingen da Elizondoko barna, euskaraz. Ordu eta leku berean, kabi-kutxen tailerra ere egingen da. 17:00etan, berriz, tailerrean egingen dako kabi-kutxak paratuko dituzte Oronozko suhiltzaileek.

Urriaren 13an, igandean, natura-irtenaldia egingen da Erdizagara. 10:30ean abiatuko dira partehartzaileak kotxez Iruritako plazatik eta hegaztiei buruzko azalpenak Seo-Birdlife elkartearen kideen eskutik eta tximeleta eta buruntziei buruzkoak Ademar elkartearen kideen eskutik jasoko dituzte.



Udazken Neguko moda gehigarria

Udazkeneko lehenengo printzak hasi gara nabaritzen eta zuhaitzei bezalaxe, guri ere iritsi zaigu soinekoa aldatzeko sasoia.

Eta bakarra aukeratu beharrean, zergatik ez nahasi? Horixe izanen da, denboraldi honetan gure buruari egin beharreko galdera. Oreka bilatuz, nahasketa izanen baita aurtengo udazken-neguko hitz gakoa. Erosotasuna eta dotorezia elkarrekin joanen dira: estilo eta kolore konbinazioak izanen dira protagonistak eta horietaz haratago, ehunak ere konbinatuko ditugu, kotoia eta larrua gehienbat.

Emakumeen artean, kapa eta pontxoak, bota altu-altuak eta silueta markatuko duen lapitz-gona izanen dira denboraldiko izarrak, jantzi sexiak eta ukitu maskulinoagoa dutenak nahasiko dira. Gizonezkoen jantzieta, aldiz, estetika bohemioa eta dotorezia klasikoa elkarren eskutik joanen dira. Eta haur eta gaztetxoek artean ere helduen joera berbera izanen da, kasu honetan kolore biziak nagusituz. Duela urte batzuetako tendentziak itzuliko dira, garai bateko modatik erabat berria den beste bat sor litekeela erakutsiz.



Sempio Mugika, 15 • 48941 • 943 618 033 | Ordizia, 6 • ORDIZIA • 943 991 279

DESIGUAL MARKAREN ESKLUSIBA

0-16 urteko neska mutikoetan berezituak
libertateak egindako soinekoak
Bodyak, baruko arropa, leotardoak, gaitzerrak, seaskak, oinetakoak

name it - barboles - 200 mila
100 - Pongosa - Corder - 1000

KAMISETAK
6,95€tik

GALTZAK
14,95€tik

KAZADORAK
29,95€tik

ESPEZIALISTAK BASERRITAR JANTZIETAN

OINETAKOAK
20€tik
OINETAKO MARKAK:
NIKE, XTI ...



Udazken-negu honetan ezinbestean armairuan eduki behar dituzun 5 elementuak

Hona hemen datozen hilabeteetan gaisetarik kenduko ez dituzun joeretako batzuk:

OIHAL KONBINATUAK

Marka ugari dira denboraldi honetan kotoia eta larrua nahasten dituztenak, berokietan batez ere.

GORRILUNA, GRANATEA EDO BORDELE KOLOREA

Iazko kolorea izan zen baina berriz ere indartsu dator.

ALKANDORA MILITARRA

90. hamarkadan hainbeste eraman ziren alkandora eta parka militarrek berriz ere arrakastaren bidetik datoz.

GRIS JASPEATUA

Sport ukituko estilo informala lortzeko, kirol-jertseak aukera ezin hobe dira. Eta gris jaspeatuak badira, gure itxurari retro puntua emanen diogu.

CARGO GALTZA

Cargo galtzak ere aipatzekoak dira, hanketan poltsikoak dituzten horiek. Hori bai, sporteko arroparekin erabiltzea komeni da.



Parisko Chic Estiloa

Gaur egun, gizonzkoen joerak emakumezkoenak bezain beste aldatzen dira. Denboraldi bakoitzean gero eta aukera zabalagoa dago eta oraingoan nahiz eta estilo ugari ditugun aukeran, *Parisko chic estiloa* izanen da nabarmenena. Estetika honek bizitza bohemioaren elementuak dotorezia klasikoarekin nahasten ditu.

GOMENDIOAK

Estilo honetako arropa erosotasuna eta dotorezian oinarritzen da eta ukitu bohemio eta artistikoa izanen du. Egokiena mozketa arrunteko txaketak bilatzea da eta hauek ator eta txaleko urdin ilun edo marra-dunekin nahastea. Xehetasun edo apaingarri tikiak dituzten jantziak bilatu: koadroak, kosturak, botoiak... Itxura landua izan behar da bai-na, aldi berean, informala.



Galtzak beti estuak (skinny) edo mozketa zuzenekoak izanen dira eta hobe kafe kolorekoak, urdin ilunak, gris ilunak edo beltzak badira. Bakeroak izatekotan, desgastatuak dira egokienak, horrela ukitu artistikoa lortuko duzu.



OINETAKOAK

Oxford-ak edo mokasinak erabili. *Retro* inspirazioko diseinuarekin, kafe koloreko larruzko zapatak dira egokienak. *Messenger* poltsoak, zapelak eta zapiak ere ezin dira falta *chic* estiloa lortzeko.

Estilo malgua da, edozein momentutan erabil litekeena: giro informaletarako, bulegorako, kalerako ibiltzeko...egokia.



Lulu

38tik 64ra bitarteko neurriak
Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik • IRUN
Tel. 943 616 165

Almatrichi
Md'm Legendre & Co.

RINATTI
Paris
Coline

DENBORALDIKO ARTIKULUETAN
BEZERO GUZTIEI

%10eko

DESKONTUA

Desigual, Mango, Matalan, Bershka, Pull & Bear

bixkiak

KIROL ETA MODAKO
arropa denda

Arretxea, 7 B2 • LESAKA
948 638 110

Emakumeak

Laister Eraikuntza Gehigarria

Irakurketa
jari nahi
baduzu
jarri gurekin
harremanetan
URRIAREN 25a
baino
lehen

T. 948 635 456
publi@ttipinet

ttipi-ttapa



TABERNA ZAHARRA
Merkatarien kanika 11 - DONEZTEBE - Tel. 948 450 007



Kattalingorri
arropa denda

emerillalimen SUR KANA
mamatayoe skunkfunk

Lois enddo ta gurea zergatik

DENBORALDI BERRIA

Lamque
ONETAKOAK

MERRELL Deizigual KEEN
*art. coolway

T 948 581 439 - Jaime Urrutia, 36 - ELIZONDO

10 joerak

Diotenez, moda kontuetan garai bateko joerak urte batzuen buruan itzuli egiten dira. Hala gertatuko da aurtengo udazken-neguan, baina hori bai, garai batekoa egungora egokituta agertuko zaigu:

1. TARTAN EDO OIHAL ESKOZIARRA: Koadro eskoziarrak izanen dira gehien errepikatuko diren estanpatuak. Bereziki ator, gona eta bero-kietan ikusiko ditugu, *grunge* eta rockero ukitua duten estilismoekin konbinatuta.

2. MARRA DIPLOMATIKOA; Joera hau serioagoa da eta mini-gona eta galtzetan ikusiko da batez ere. Bere alderdi maskulinoena emakume-janzkietan aurkituko dugu, jaka estuarekin eta bi kolore nagusietan: grisa eta urdin iluna.

3. ESTILO MINIMALISTA: Serioa eta hagitz dotorea. Batez ere soineko beltz edo zurietan eta kapetan ikusiko dugu.

4. COCOON SILUETA: Jantzi zabal-zabaletaz hitz egiten dugu kasu honetan, batez ere, sorbaldetan bolumen haundia dutenetaz. Beroki eta kapetan nagusituko da joera hau.

5. LENTZERIA UKITUA DUTEN SOINEKOAK: Negu hau sentzuala izanen da. Lentzeria itxurako satenezko mini-gonak edo belaunetaraino iristen diren midi-gonak jantziko dituzte ausartenez, enkajezko apaingarriekin.

6. EMAKUME-JANZKIAK: Beltza, urdin iluna eta marra diplomatikodunak, horrelakoak izanen dira emakume-jantziak. Jaka gurutzatuak, estuak eta orka-tilerainoko galtzekin.

7. LADY SILUETA: Gerri estua eta beheko aldean zabaltzen diren soineko eta beroki femeninoak. Joera honekin estilo oso sofistikatuak lortzen dira, eta nola ez, erabateko *lady* itxura.

8. LOREAK: Lore handi nahiz ttikiak dituzten estanpatuek neguko egun ilunak alaituko dituzte.

9. LARRUA: Bertsio guztietan: oso-ko jantziak, soinekoak, gorpuzak, buelodun gonak, mini-gonak... eta ez beltzean bakarrik, kolore guztietan baizik.

10. ZEIN KOLORE NAGUSITUKO DIRA?

Artile-kolorea eta urdina. Batez ere artile-kolorea zuri eta *klein* urdinarekin konbinatuta. Zuriak eta beltzak ere ez dute hutsik egingen eta bien nahasketa asko erabiliko da. Gorri, hori, gris eta arrosa kolorekoak ere ez dira faltako.



Denboraldiko berriaren gakoak



Udazken-neguan azpimarragarrienak kapa eta pontxoak, bota altu-altuak eta silueta markatuko duen lapitz-gonak izanen dira. *Over-size* txalekoarekin estilo maskulinoari ukitu sexia emanen zaio. Rockerentzat, botin moteroak ere aipatzekoak dira.

Jantzi asimetrikoen artean *origami* gonak bereziki aipatu behar dira. Animalien estanpatuak ez dira desagertuko eta oraingotan zinez originalak izanen dira: suge, leopardo, zebra edo behi larrua irudikatzen dutenak ikusiko ditugu han hemenka. Laukiak, borobilak eta marrazkiak ere denboraldiko jantzetan ez dira faltako. Pasareletan askotan errepikatu den materiala larria izan da, bakarrik eta baita beste oihalekin konbinatuta ere. Alkandora-lepoa batez ere soineko, txaketa, *top* eta jertsetan ikusiko da.

OSAGARRIAK

Jarri motxila bat zure bizitzan

Gure altxor txikiak bizkarrean eramatera ohitu gara udaberri eta udan eta, datorren denboraldian ere, motxila osagarrien artean erregina izanen da. Erosotasuna eta orijinaltasuna ditu bere alde. Lan egunetan behar dugun guztia sartzeko ezin hobe da eta modelo eskaintza hain ugaria izanik, gauetan eta momentu berezietan ere erabili ahal izanen da.

Horietaz gain, kolore sofistikatuak dituzten poltsak, koloretako harriekin apaindutakoak edota loredunak ikusiko ditugu, soineko beltzekin edota praka bakeroekin eramateko aproposak.

Bitxien artean *vintage* ukituko koi-lareak nagusituko dira, janzkerari beharrezkoa den elegantzia puntua ematen dieten apaingarriak.

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

Ametzia z/g · DONEZTEBE
T. 948 450 163

DENBORALDI BERRIKO
ARROPA AUKERA ZABALA

Bitxiak eta poltsak prezio ezin hobean

ZATOZ ETA IKUSI!

Mari Cruz
LENTZERIA

DONEZTEBE - 948 450 112

ORAIN 52 NEURRIRA BITARTEKO
ARROPA KOLEKZIOAK ERE

ELLA CAVALETTI ITALIA
MALVIN

NICKELSON
VIENTO DONNA

olsen



Oinetakoak

EMAKUME - GIZONAK

Chelsea botak nabarmenduko dira neguko denboraldian

Negurako guttiago falta da eta oinak lehor eta egon daitezzen, hona hemen udazken-negu honetan gizonaek eramanen dituzten oinetako-en gaineko xehetasunak:



HIGH TOP-AK

Gaur egun, *casual* eta dotorearen arteko muga ia ez da antzematen. Horregatik, *high top* estilo-koak egunerako nahiz gauerako egokiak izanen dira. Oinarritzko tonuak dituztenak aukeratu, diseinu eta kolore deigarriak saihestuz.

Belaunetik gorainoko botak edo mosketerak

Belaunetarainoko botak berriz ere modan egonen dira. Oso sentsualak direnez, emakume askorentzat oinetakorik gustokoenak dira.



MATERIALEN NAHASKETA

Koloreak bakarrik nahasteaz aspertu bazara, has zaitez material deigarriak nahasten. Animalien imitaziozko larruak, plastikoa, benetako larruak, metalak, belusa, sarrioa (gamuza).

Oinetako eta osagarriak

Oinatz

ESKERRAK EMAN DIDAZUEN
HARRERARENGATIK

Itziar Fagoaga Lopez
Legia, 42 31780 BERA • T. 948 630 120

Zure oinak zaintzen!

CALZADOS VIRGILIO

Santiago, 32 ELIZONDO - 948 580 209
www.calzadosvirgilio.com
Larunbat arratsaldetan irekia
FAMILIA UGARIENDAKO %10eko deskontua

ZERBITZU BERRIAK:

MIKROPIGMENTAZIOA:

Begi, bekain eta ezpainetako edertasun nabarmentzeko makillaje iraunkorra.

ANTES:

AHORA:

TATUAJEAK:

► BEKAIN ETA BETILEEN TRATAMENDU IRAUNKORRA

► BETILEEN LUZAPENA (ILEZ-ILE)

► ESMALTATU IRAUNKORRA

► MANIKURA ETA PEDIKURA

► AZAZKAL LANDUAK

► AURPEGI DEPILAZIOA

OYÁ

EDERTASUN ZENTROA

Legia, 45 - behea • BERA
T. 948 631 005 • M. 698 499 192 • 698 499 204
www.facebook.com/estudio.oia

ORDUTEGIA:
Asteartetik ostiralera:
09:00-13:00 • 16:00-20:00
Larunbatetan: 10:00-13:00

Manikura

Kolore ausarteko manikurak modan

Glitterra edo distira duten azazkal-laka berriekin, *nail art*-a gero eta orijinalagoa bihurtzen ari da. Jar ezazu irudimena martxan eta kolore konbinazioak eginez, datozen hilabeteetan zure trebetasuna erakusteko aukera izanen duzu.

Denboraldiko joeretako bat pasareletatik dator. Hauetan harribitxi eta inkrustazio harriarriak ikusi ditugu. Ordezko azazkal handiak ere modan egonen dira eta ordezkorik erabili nahi ez baduzu, zureak XL neurrira arte luzatzen utz ditzakezu.

Azazkal luze hauek udan hainbestetan ikusitako menta berde kolorez pintatzea aukera ona da. Izan ere, nork esan zuen kolore deigarriak udan bakarrik erabili behar direla?

Manikura frantsesak ere izanen du bere tokia, XL bertsioan eta hauetan ere kolore deigarriak erabiltzea aukera bikaina da. Kabiarrak ere indartsu dator, kolore gorri eta beltzetan.

Urre eta zilar koloreak ere neguko manikuran agertuko dira, jantzi dotoreekin eramateko ezin hobeak.

Ispilu efektua da beste joeretakoa bat, lakak erabiliz lortzen dena.

Tono degradatuak, *tie dye* delakoak ere modan egoten segiko dute.

Horietaz gain, azazkaletako laka klasikoak ere ez dira faltako: gorriak, granateak, ardo koloreak, *nude*-ak, beltzak...



Parrokia 17 | DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
costiz@telefonica.net

ZAPATADENDA | LIBURUNDENDA
PAPERTEGIA

BEOLA ETXEA • Ibardingo gaina, 30 • BERA T. 948 630 709

DENBORALDI BERRIA!
gizon eta emakumearentzako arropa

%10 eko deskontua
DENBORALDI BERRIKO BILDUMETAN

OSAGARRIAK, BITXIAK, BOLTSOAK ETA OINETAKOETAN AUKERA ZABALA

UDAZKEN-NEGUKO MODA BERRIA DAGOENeko ZURE ESKURA!!!

Etxeko ttikiek ere armairua berrituko dute

Dagoeneko udazkena iritsi da eta ikasturte berria ere hasi dute haur eta gaztetxoek.

Horregatik, etxeko ttikien armairua berritzeko garaia ailegatu da eta denboraldi berriko arroparekin jantzi behar ditugu.



Galtza bakeroak izanen dira gure lagunik hoberenak, inoiz ez dira modaz pasatzen eta edozein egoeratarako balio dute. Kamiseta eta kirol-jertsearekin konbina daitezke eskolara joateko, asteburuan atorra eta zapatekin dotoreago joateko...

Roll galtzak ere haurren armairura iritsiko dira. Azken hilabeteetan helduek galtzak gorantz doblatuta eraman ditugu eta orain mini edo bertsio ttikian datoz. Gainera arras praktikoak dira, neurri handiagoko galtzak eros litezke eta, horrela, denbora luzeagoan erabili ahal izanen ditu haurrak.

Eskola eta parkera dotore-dotore joateko, jantziak bata bertzearen gainetik eramanen dira: atorra kamisetaren gainetik, blusak soinekoen azpitik, txaketa bakeroak txalekoarekin...

KOLOREAK

Batez ere kolore biziak nagusituko dira: mostaza, laranja, urdinak, berdeak, gorriak, arrosak... guztiak neska eta mutilentzat.

Horrez gain, estilo dotoreagoak ere aurki daitezke: nostalgia findua, erdi aroa, barrokoa edota metropolietako eromenean inspiratutako jantzi eta osagarriak erabiliz.






Haurrak Gazteak

Haurrentzako moda: neguko arropa janzteko gomendio batzuk

Haurrak bero-bero eta dotore-dotore jantzita ibiltzea posible da. Hona hemen osasuna zaindu eta, aldi berean, modako joerei segitzeko aholku batzuk:

- Beti beroki edo txaketa bat eraman, tenperatura aldaketak gero eta handiagoak dira. Denboraldi honetan beroki eta alkandora luzeak eramanen dira. Kamisetei dagokienez, estanpatuak dituztenak egonen dira modan.
- Jantzi bakar batean ez erabili kolore opaku asko. Irudimena dantzan jarri behar da eta kolore alaietako arropak nahasi. Denboraldi honetan gehien nagusituko diren koloreak grisak, berde militarra, fuksia, mostaza, korala eta morea izanen dira. Urrea eta zilarra ere ez dira faltako.
- Konbinatu oihal desberdinak. Janzteko orduan orijinaltasuna ere kon-tuan eduki beharreko faktorea izanen da datozen hilabeteetan. Hari metalikoak, lentejuelak, belusazko ukituak, brodatuak... erabil ditzakezu horretarako.





MARKA HOBERENAK PREZIO BAXUENETAN

3 POMMES BENZI BMSAK BM CONVERSE DELSEY DENIM & SUPPLY DESIGUAL DOCKERS EASTPACK ESPRIT G-STAR I.CODE IKKS JACKS&JONES LACOSTE
LACOSTE LIVE LEVYS LITTLE MARCEL LOLLIPOPS LOTTO MANGO OUTFITTERS NATION ONLY ONLY PLAY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS RALPH LAUREN
RIP CURL SAMSONITE SELECTED SUPERDRY LE TEMPS DES CERISES TOMMY HILFINGER VERO MODA KOCCA RELISCH PROMISE CK UNDERWEAR NAPIPLURI

PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM
Tel: +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (lr)
Arnegui | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin



OSPAKIZUNAK → IBARDINEN

Lurraren Egunarekin borobilduko den kultur egitarau zabala izanen da hilabete osoan

Haurrentzako ikuskizuna izanen da urriaren 13an

TTIPI-TTAPA

Urriroko kultur ekitaldian leku berezia eta aipagarria du laugarren igandeko Lurraren Egunak. Baina gasnagile, sagardogile, eskulangile eta baratzezainek urriaren 27rako beraien lanak prestatzen eta zaintzen dituzten bitartean, bertze hainbat ekitaldi egingen dira Beran.

Honela, urriaren 13an, igande arratsaldeko 5:30ean haurrentzako ikuskizuna izanen da Kultur Etxean. Kilkon Ekoizpenak taldearen eskutik *Kortxea Doktorearen abenturak... eta Musika Tresnen Fabrika* lana izanen da ikusgai. Kultur Batzordeak 3 eta 9 urte bitarteko haurrentzat antolatatu duen ekitaldira sar-

tzeko 5 euro ordaindu beharko dira, baina sarerarekin batera oparia izanen dute. Urriaren 18an, 2 eta 7 urte bitartekoentzako ipuin kontalaria izanen da herri liburutegian, 18:00etatik aitzinera *Miru eta bere lagunak* ipuina kontatzen. Hilaren 20an, Emaizta antzerki taldeak *Esperando a la inglesa* taularatuko du 18:30etik aitzinera Kultur Etxean. Lurraren Egunaren bezperan, hilaren 2an, Lizuniagako lgoeraz gain, Bera kantari ekimenaren edizio berri bat egingen da, 19:00etan Illekuetatik hasita.

1972ko kinto bazkaria

1972an jaiotako herriarren kinto bazkaria egingen da urriaren 19an. Interesatuak urriaren 15a baino lehen Zalain jatetxean eman beharko dute izena, 10 euro utziz.



Ba al zenekien

Lesakako BTT lasterketan, Euskadiko XCM txapelketan Gure Txokoa taldeka garaile izan zela, Juan Carlos Garro 10., Asier Apezetxea 11., eta Miguel Solano 19. izan ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Illekuetako bestak umore ederrean

Giro ederrean joan dira aurten ere Illekueta auzoko bestak. Auzotarren meza, herri kirol saioa, trikitilarien kalejira erraldoekin... hiru egunez luzatu ziren bestak eta adin guztietako pertsonentzat nahikoa aukera izan zen. Mahaiaren bueltan egindako herri bazkari eta afariak ere ez ziren falta izan, xuabe xuabe erretako zikiroa barne. Eta larunbatean tripa ongi bete ondotik, kantuan ere aritu ziren. Garai bateko abesti zaharrak ekarri zituzten gogora eta kantuan hastera ausartu ez zirenek ere ederki pasa zuten adituz. Orain zapi laranjak berriro ere lepoan jantzeko urte bete itxaron beharko da!


OSASUNA

Mediku eta pediatria zerbitzuaren antolaketa berria adostu dute zonaldeko lantaldearekin

TTIPI-TTAPA

Osasun saileko zenbait ardura dunek Udalarekin izandako azken bileran jakinarazi zuten, osasun zerbitzuaren antolaketa berria adostu dute zonaldeko lantaldearekin. Honela, orain egunero Etxalarko medikua bi ordu eta erdiz etorriko da Berara, ordutegi ezberdinean, jendeak aukera ezberdinak izan ditzan bai Beran baita Etxalarren ere. Izan ere, gaur egun Etxalarko medikuak 800 pertsona ditu atenditzeko eta Berako bi medikuek bakoitzak 1.700 lagun inguru, banazbertzekoaren gainetik. Dagoeneko Etxalarko medikuari asignatu diote Berako 300 pertsona eta eskutitzak bidali dituzte aldaketak azalduz.

Pediatria zerbitzuari dagokionez, gaur egun pediatria bat baino gehixeago beharko litzateke Bortzirietan, haur kopuruaren arabera egunean 10 bat orduko lana baitago. Nafarroako plantillak birrantolatu eta Bortzirietarako bi ordu eta erdiko plaza bat izanen da pediatrian. Dagoeneko izendatua dago pediatria hori eta ez zaizkio haurrak asignatuko, baina gripe, otitis eta halako kontsultak berak egingen ditu. Pediatria hau beti egonen da Lesakan eta horren orde, gaur egungo pediatriak egunero ordu eta laurden inguru gehiago egingen du Beran. Lanpostu berri honekin, oporraldiak ere bi pediatrien artean osatu ahal izanen dituzte orain.



LESAKA

GIZARTEA → JUBILATUEN OSPAKIZUNA

San Fermin Elkartearen Eguna ospatuko dute urriaren 25ean

Bazkarirako txartelak urriaren 16a baino lehen hartu behar dira

Aitor **AROTZENA**

San Fermin Erretiratu elkartearen eguna ospatuko da urriaren 25ean. 12:30ean Meza Nagusia izanen dute Sam Martin parrokian. 13:30ean aurrekua dantzatuko zaie omen- duei Plaza Zaharrean eta 14:00etan bazkaria herriko frontoian. Bazkarirako txartelak hila- ren 16a baino lehen hartu behar dira Nafarroako Kutzako bulego-

an eta elkartearen egoi- tzan, 34 euro ordainduz.

Bazkalondoan, 16:30 aldera, aurten Diamantezko eta Urrezko Ezte- iak, baita 85 urte bete- tzen dituzteneri ome- naldia eskainiko zaie. 17:00etan zozketa egi- nen da eta 17:30ean el- karteak antolatutako txapelketa ezberdinetako sari eta trofeo bana- keta egingen da. Buka- tzeke, 18:00etan dan- tzaldia izanen da.

Ba al zenekien

Gipuzkoako Ohorezko Mailan liderra izan de- la lehen bi jardunaldietan Beti Gazteko futbol talde nagusia eta historian estreinekoz lortu duela kategoria honetan sailkapen buru iza- tea. Bi partidak irabazi dituen talde bakarra da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko bertsolariak prest Txapelketa Nagusian parte hartzeko

Lau urtetik behin egin ohi duenez, abiatu da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia eta bertan aritzeko prest daude parte hartzeko eskubidea iraba- zi duten herriko hiru bertsolariak ere (Hernanirekin berdinduta, bertsolari gehi- en plazaratuko duen herria da Lesaka). Horrela erakutsi zuten bederen Xabier Silveirak, Eneko Fernandezek eta Erika Lagomak, Julio Sotorekin batera iraila- ren 21ean Erregeneko baratzean (bertso-plaza berria herrian) eskaini zuten sa- ioan. Bortzirietako Bertso Eskolak antolatutako *simulakroaren* ondotik, txapelke- ta ofizialaren txanda izanen dute, Fernandezek urriaren 5ean Markinan eta Sil- veirak eta Lagomak urriaren 13an Altsasun.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Emakumeak nagusi Bittiriko bestetako gizon-proba ikusgarrian

Aurten ere egitarau zabala prestatu dute Bittiriko bestetan, baina nobedade handiena larunbat eguerdiko gizon-probarena izan zen. Hiru talde lehiatu ziren ordu laurdeneko lanean: Lesakako eta Ibarako nesken zortzikoteak, 550 kilo- ko harriarekin eta herriko sei mutil, 650 kilokoarekin. Herriko neskak nagusitu ziren juxtu-juxtuan, Ibarako nesken eta Lesakako mutilen aitzinetik.

IKASTURTE BERRIA eta ESKAINTZA BEREZIA

%50 2. betaurrekoen lenteetan

Intzuri OPTIKA

Bittiria 28, Lesaka. 948 627 550
www.intzurioptika.com

ETXALAR

OSPAKIZUNAK → KONZERTUAK GAUEAN

Urriaren 12an ospatuko da II. Gazte Eguna

Hainbat ekitaldi izanen dira goizetik gauera

Irune eta Itsaso

Gazte Egunaren bigarren edizioa antolatuta dute urriaren 12rako eta egitarau zabala osatu dute:

- 10:00etan gosaria La basque jatetxean
- 11:30ean paella txapelketa.
- 14:00etan bazkaria frontoian.
- 17:00etan gazte jokoa.
- 20:00etan trikipoteoa.
- 21:30ean "bokata" txoznan.
- 23:00etan kontzertuak frontoian: Herstura, Zopilotes Txirriaus, Soñadores Natos eta DJ Mattin Maia.

Kultur egunak

Euskara batzordearen eskutik kultur egunak izanen dira.

Urriaren 5ean, kontrabandoari buruzko hitzaldia emanen du Ro-

sa Arburuak 19:00etan Kultur etxean.

Urriaren 19an Tik Tok antzerki taldearen eskutik Eguzkilore antzezlanak izanen dira Kultur etxean 19:30ean.

Saratar eta etxalartarren besta

Irailaren 22an ospatu zen Usategietako tradizioaren besta. Hirugarren urtea da besta hau ospatzen dena eta urtez urte jende gehiago hurbiltzen da.

Goizetik ekitaldi eta erakusketa desberdinak izan ziren: herriko artisauek beraien produktuak saltzen, Olako tresna zaharren erakusketarekin, paletak nola egiten diren erakustaldia, taloak Maria Mitxelenaren eskutik, Pirinioetako 10 sareko usategien erakusketa Sarako Ondarea elkarteak eskeinia, baita txistulariak eta Saranga taldea ere. Ekitaldien artean, etxalartarrak eta saratarrak garai bateko *Boite-luzea* pilota modali-



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN

Giro ederrean joan dira Urritzokietako bestak

Irailaren 14, 15 eta 16ean ospatu zituzten Urritzokietako auzoko bestak. Ekitaldi guztiak hagitz arrakastatsuak izan ziren, batez ere txokolatada eta igandeko asaua, 60 lagun inguru bildu baitziren.



ARGAZKIAK: LAURA ELIZAGOIEN ETA ARANTXA ZUBIETA

Berriz ere saratarrak eta etxalartarrak bildu zituen Usategietako tradizioaren bestak.

tatean aritu ziren. Makila botatzeko txapelketa-ri dagokionez, urrunen bota zuena Javier Galarregi *Tolare* izan zen (85 metro). Taldeka berriz, Sarako usazaleak nagusitu ziren.

Egurdian urteroko alkateen sinadura bu-

rutu zen eta ondotik saratarrak eta etxalartarrak sokatiran lehiatu ziren. Sarako dantzarien emanaldia ere izan zen ikusgai. 300 lagunetik gora izan ziren bazkal-tzen, hauen artean Anjel Alkain telebistako umorista ezaguna.

IKASTAROAK

Aukera zabala aurtengoan ere

Aurtengo ikasturtean ere aukera zabala izanen da estraeskolarretan haur eta helduentzako: trikitixa, kenpo, ingelesa, dantza jazz, musika eta mugimendua, pandereta, perkusioa, multikirola, katekesia, euskal dantzak, pilota edo futbola. Haurrez gain helduek ere zenbait aukera izanen dituzte: gimnasia, yoga eta meditazioa, eskulanak edo informatika ikastaroetan (Kultur Etxean) izen emateko aukera dute.

XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA: 948 638 232
Koskontako bidea, 7
31770 LESAKA

zatoz denda hona eragutsera!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

"TELLETXEA"
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

IGANTZI

GERTAERAK → SAIOA TELLETXEAREN HERIOTZAREN ONDORIOZ

N-121-A errepideko arriskua murrizteko neurriak eskatu dituzte

Bilera eskatu diote Sustapen kontseilariari eta «konpromiso zehatzak ekar ditzala»

TTIPI-TTAPA

N-121-A errepidean azken heriotza irailaren 17an gertatu zen. Saioa Telletxea Zubeldia, 23 urteko igantziarra hil zen, bere autoak kamioi baten kontra jo ondotik. Irailaren 20an, Baztan-Bidasoaldeko zenbait alkate, zinegotzi, gizarte eragile eta lagun bildu ziren Igantziko Herriko Etxean, errepide honek duen arriskuaz ohartarazi eta neurriak hartzea eskatuz.

Saioa Telletxearen senide eta lagunei doluminak adierazi ondotik, Nafarroako Gobernuari «hasi dadila urgentzia osoz dauzkagun puntu beltzetan neurriak hartzen» eskatu zioten eta Sustapen kontseilariari «bertara-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Puntu beltzetan neurriak lehenbailehen hartzea eskatu zuten Igantziko Herriko Etxean.

tu dadila bilera bat egiteko eta horretara ekar ditzala konpromiso zehatzak». Modu berean, arriskuak ekiditeko garraio publikoa indartzea eskatu zioten Gobernuari eta «geroz eta handiagoa den ibilgailu astunen garraioak sortzen dituen arazoan aitzinean, produkzio eta kontsumo ereduaren aldatketaren alde egitea, ho-

nek beronek ekarriko baitu garraio sistema jasagarriago bat». N-121-A errepidea erabiltzen duten herritarrei arretaz eta arduraz jokatzeko deia ere egin zieten.

ABIADURA ETA PUNTU BELTZAK

Errepideko istripu hauek hainbat faktorek eragin dituztela aipatu

zuten bilkuran, baina abiadura eta puntu beltzak azpimarratu zituzten. Abiadurari dagokionez, hilabete eskas batean egindako abiadura kontrolatzeko kanpaina batean 154 kamioi multatu zituztela gogorarazi zuten eta «gaur egun berdin-berdin jarraitzen du arazo honek».

Puntu beltzei dago-

kienez, «Sunbillako bi bidegurutzeak (2009an proiektua egin eta Nafarroako Gobernuak oraindik ez du ezer egin), Berako sarrera-irteerak, Berako zentralaren kurba eta toki berean dauden Lesakako irteera, Lamiarri tunelaren ingurua, Montoiako kurba, Belatek beheiti Alman-dozko parean...» aipatu zituzten. Belateko tunelak ere lauetatik hiru-tan itxita egoten direla eta Beran hainbat egunez «gure buru gainean izugarrizko harri kozkorra zintzilik zegoela» gogoratu zuten.

Errepidearen egoerari dagokionean, istripu egunean berean, Nafarroako Gobernuak errebisioa egin behar diotela aipatu zuen. 2005ean 14 pertsona hil ziren errepide honetan eta 2006tik honat hainbat hildako izan direla aipatu zuten, Sunbillan, Mugairin, Donezteben, Lesakan, Beran eta azkena Irungo dermionan, nahiz eta karretera Nafarroakoa izan 2024 urtera arte.

ERREKALDE
PLATER KONKURTATIAK
DUTZAK
KONTAKTUA
TFbna: 948 630 259 BERA

BERA Zure inguruan klase guztietako insektuz (xomorro, zinourre, armiarmu, kukuxu...) eta erratoi xagutxaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Gerbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zabalain, 42 A • BERA

bortairudi
ttipi txartela
%5eko DESKONTUA
5€tik gorako gastuan, kopietan, enkuadernazioetan, eta inprentako zenbait lanetan (argibideak dendan)

XITRELL
Albata 1 - BERA
Tfona 948 631 482

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalafakzioa
Tfona: 629449602 • BERA

GIZARTEA → IRAILAREN 19AN HARTU ZEN

Udaletxeko balkoian bandera espainiarra jartzeko eskaera jaso da

Gaiaz solasteko herri batzarra deitu dute ortziral honetarako baskulan

Nerea ALTZURI

Eskualdeko bertze herri batzuetan azken hilabeteetan gertatu den bezala, Arantzako Udalak ere jaso du Herriko Etxeko balkoian bandera espainiarra paratzeko errekerimendua. Irailaren 19an herriko etxean bandera espainiarra jartzeko eskatuz idatzizko eskaera bat jaso zuen alkateak.

Joan den asteazken arratsaldean batzar ba-

terako deia egin zen gai honi buruz solasteko eta bertan erabaki zen urriaren 4an, ortziral arratsko 8etan herri batzarra deitzea, herrian zer egiten ahal den hausnartzeko. Baskulan izanen da hitzordua. Aitzinetik plenoa egitekoa dute Herriko Etxean, eskaerari helegitea jarri edo ez erabakitze-ko eta gero herritarrekin adostu nahi dituzte herri mailan har daitezkeen neurriak.

Arantza hotela

Gure herrian egonaldiak egiteko hainbat zerbitzu daude: aterpea, landaetxeak... orain bertze bat gaineratuko dugu. Hilabeteetan, hainbat langileen joan



UTZITAKO ARGAZKIA

Kataluniako bidaia

Kruzeroan ez bezala, abuztu bukaeran Katalunia aldean iragandako bortz egunak ederki pasatu zituzten. Guzira 46 lagunek, eguraldia lagun, leku ederrak ezagutu zituzten. Datorren igandean, Zahar Txokon bazkalduko dute eta ondoren, bidaia argazkiak ikusiko dituzte.

etorriak sumatu dituzte herritarrek eta azkenean, udan, Aientsa auzoan kokatzen den Arantza hotelak bere ateak ireki zituen. Lau izarretako landa hotela da eta www.arantzahotela.com-en sartuta hotelaren gaineko xehetasunak irakur daitezke: Hamai-

ka gela, spa, jatetxea, ostatua... tarifak, eskaintza bereziak, oparitzeko bonoak... Harremanetarako bideak ere bertan agertzen dira.

Patioko zaintzailea

Eskolako jangelako eta patioko zaintzaile lanak betetzen ditu Ezke-

rrenbordako Maria Ixabel Lukanbiok. Patioan, orain arte laguntzaile zuen Lolik lan hori utzi eta ordezkoa topatzeko deialdia egin zuen Guraso Elkarteak. Aurkeztu zirenen artean Edurne Iparragirre aukeratu dute gurasoek lan hori betetzeko.

KONPONKETAK
ere egiten ditugu

BORTZIRIAK
expert

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

ERROTAR

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - otea 21-22
31780 BERA

ERROTAR

harategia

Bertako
produktuak

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

SUNBILLA

HEZKUNTZA → 15 IRAKASLEREN GIDARITZAPEAN

86 ikaslek hasi dute ikasturte berria eskolan

Horietatik 11 berriak dira eta 6 Doneztebeko eskolara joan dira

Maidar PETRIRENA

Bertze ikastetxe guztietan bezala, Sunbillako eskolan ere eman diete hasiera 2013/2014 ikasturtari. Aurtengoa aipatzekoa da 11 ikasle berri sartu direla Sunbillako eskolan eta 6 berriz Doneztebeko eskolara joan direla. Osotara 86 ikasle ditugu herrian. Haur Hezkuntzako 1. mailan (berriak) hamaika dira: Maialen Maritxalar, Anartz Ezkurra, Ander Apeztegia, Joanes Bertiz, Santi Jimenez, Maren Irigoien, Ibai Petrirena, Haizea Larzabal, Mara Gonzalez, Aroa Bertiz eta Xuban Jauregi, 2. mailan 16 ikaslek hasi dute ikasturte berria eta 3. mailan 8k. Lehen Hezkuntzako 1. mailan 11, 2. maila 9, 3. mailan 6, 4. mailan 12, 5. mailan 5 eta azkenik 6. mailan 8. Guztira 15 irakasle ditugu herriko eskolan.

Ariztigain kanpina

Ariztigain kanpina urritik aintzinerazteaz, asteazken eta ortze-



ARGAZKIA: MARIA AZKARRAGA

Sunbillako eskolan hasi berriak dira argazkiko 11 haurrak. Gustora daudela dirudi!

gunetan 16:00etatik aurrera itxita egonen da. Egun hauetan afariak enkarguz bakarrik ematen dira.

Dantza kontuak

Dantza ikasten hasi nahi duten hurrek izen emateko urriak 30era arteko epea izanen dute. Klaseak azaroan hasiko dira. Apuntatzeko 678537607 telefonora deitu faborez.

Herriko dantza jaialdia baino lehen azken emanaldia Elbeteko bestatan eskaini zuten Sunbillako dantzari helduek eta primeran ari zirenean ere.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Sunbillako dantzarien emanaldia Elbeteko bestetan.

Ba al zenekien

Bustitz ostatuan ortzileroko mus txapelketa da-goela? Animatu!!!

BERTIZ

CRANArekin hitzarmena sinatuko dute lau herrik

TTIPI-TTAPA

Guratrans proiektuaren hitzarmenak sinatzeko ekitaldia egingen da urriaren 8an, 17:00etan, Bertizko Parke Naturaleko Jaurerrian. Zehazki eskualdeko lau herritako alkatek sinatuko dute hitzarmena, Baztan, Berra, Doneztebe eta Lesakoek, CRANA Fundazioko presidentarekin batera. Hitzarmenean aurrikusitako jarduerak 80.900 euroko aurrekontua du eta lau udalerritan hainbat ekimen egingen dira, tartean ingurumeneko ur auditoriak Lesaka, Doneztebe eta Elizondoko udal instalazioetan edo uraren eskaria kudeatzeko plan baten esperientzia pilotua Beran eta Lesakan.

GURATRANS Proiektua, Interreg IV A egitasmoaren baitan dago eta Pirinioetako mendebaldeko muturreko mugaz gaindiko ibaien kudeaketa integral eta parte-hartzailea bilatu nahi du. Sinadura ekitaldiaren ondotik, proiektua aurkeztuko da, 17:30etik 20:00etara eta aurkezpen honetara gonbidatuak daude gainerako alkate eta gizarte eragileak ere.

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
Erretoria - Asador
Barrutia, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

3BKO
Fruin Autza - LESAKA
Tfnoa: 948 637 806

USOA
Nekazari kooperatiba
Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etkez etxeok banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

SALDIAS

NARBARTE

GIZARTEA → EGITURA BEREZIA DUTE, ELKARRI ITSATSIK BAITAUDE

Joantoneko eta Iriarteko teilatuak berritu dituzte

Aro ona tokatu zaie langileei eta etxeo nagusiari

Markel LIZASOAIN

Teilatuak berritu dizkiote Joantoneari eta Iriarteari. Herriaren erdialdean daude, eta egitura franko berezia dute, elkarrri itsatsiak baitaude: Iriarteko teilatu puska bat Joantonearen segida da, eta Iriarteak koska bat kentzen dio Joantoneari. Iriartea aspaldiko etxea da, eta orain 300 bat urte luzatu omen zuten. Geroztik dauka forma bihurri hori. Horretaz landara, Joantone esaten zaion etxe barrenean bi alde daude, erdian kaldurrenainoko pareta batek bereiziaz; iparreko aldetik Mantxenea omen da, eta hegoalde, Joantonea bera. Diote borda guziek dutela beren etxea herrian, eta Mantxeneko bordak huraxe izanen du, inondik ere.

ETXEEN IZENEZ

Irtea esaten zaio egunerokoan, baina Iriartea heldu da agirietan. Eratsungo eta beste herri askotako etxe izena da. Abizena ere bada, eta hitz horrekin ez da beste askorekin izaten den duda-



ARGAZKIAK: MARKEL LIZASOAIN

Etxeko nagusia teilatuari begira eta kapiro berriak.

rik: lehenik etxeak hartuko zuen, eta gero pertsonak, tokia erakusten baitu esanahiz: hiri edo herri artea. Hizkera batekoek eta bestekoek izen hori bera alde batera edo bestera idazteko ohitura izan dute: Iriarte, Hiriart, Idiart... Joantoneak, berriz, Joantoren etxea esan nahi du. Pixkanaka aldatuz joan izanen da etxearen izena: Joantorena, Joantorenea, Joantonea, Joantonea. Mantxenez, berriz, esan digute agiri zahar batean *Mari Juantxenea* heldu dela eta besteren batean *Maritxontxea* eta *Maritxonea*. Alde ederra, orduan, denboraren joanean gertatu dena.



Sagardoa

Sagarrarentzat urtabe txarra izan da hau, eta arbolak fruta gutxirekin ikusten dira bazterretan. Sagardoa egiteko ohitura duten batzuek diote aurten ez dutela prentsaldirik egingo eta bes-

te batzuek litro gutxi aterako dutela.

Ehiza sasoia

Ehiztariak horibili dira harata eta honata postuak moldatzen, eta usoak noiz pasatuko zain izanen dira.

NATURA

Berandu baina ederrak etorri dira aurten ere tomateak

Martin BERTIZ

Jakina da Narbar-teko tomateak daukaten zapore goxoa. Aurten arras berandu ailegatu zaizkigu baratzetara eta ondorioz, gure plateretara, baina bai eder askoak etorri direla. Adibide-tarako, herriko barride batek erakutsi dizkigun bi tomate eder hauek, bi kilo terdi eta kilo terdi pisatu dutenak.



Bi hileta elizkizun

Ez da bolada gozoa izaten ari herriarentzat. Uda aurrean joan zitzagun Apezeneko Mike-la, eta uda akabilean Danbolineko Jesus Mari, biek ere gaitz luze eta makurrek jota. Doluminak familiakoei.

ttipi-ttapa

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

inprimitzen ditugu

DONEZTEBE

KIROLA → URRITIK EKAINERA BURUTUKO LITZATEKE JARDUERA

Emakumeen lasterketa taldea osatu nahi du Erreka elkarteak

Lehenbiziko bilera urriaren 3an eginen dute egoitzan

TTIPI-TTAPA

Erreka Kirol Elkarteak emakumeen lasterketa talde bat osatu nahi du. Horretarako, Berako Manttale taldeko monitoreen laguntza izanen du. Ideia ortzegunero 19:30etik 20:30era entrenatzaile/monitorearekin gelditzea izanen zen, eta asteen zehar bertze egunen bat gelditu laister egiteko, kasu honetan monitorerik gabe. Hamar neska behar dira guttienez taldea osatzeko, eta apuntatzen diren kopuruaren arabera bi talde ere osaditezke.

Urritik ekainera burutuko zen jarduera hau eta hilabeteen 12 euro ordaindu beharko lirarteke. Guzti hau azaltzeko datorren urriaren 3an, ortzeguna, bilera eginen da Errekaren egoitzan, 19:30etatik aintzin. Ber-



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Emakume aunitzek badute lasterka egiteko afizioa herrian.

tan Manttale taldeko ordezkariaren bat izanen da eta berak emanen ditu behar diren azalpen guztiak.

Interesatuak Jokin Apezetxea Errekaren ordezkariarekin harremanetan jar daitezke (japezetxea@hotmail.com) edo urriaren 3an Errekaren egoitzan eginen den aurkezpenera agertu.

Ipuin kontalaria Malerrekako Kultur ibilbidearen barnean

Malerrekako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak urrirako antolatutako Kultur Ibilbidearen barnean, urriaren 23an Birjina Albiria ipuin kontalaria izanen da Doneztebeko liburutegian, 17:00etan eta

18:00etan. Bi ipuin saio izanen dira, txikienentzat, Kutxa ireki nuen ipuin bilduma (Haur hezkuntza eta LHko 1. eta 2. mailako haurrendako). Helduagoendako, ordea Ipuin zopa emanaldia aurkeztuko du Virginia Albirak. Azken hau Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako haurrendako izanen da.

IKASTAROAK

'Nola saldu denbora nahasietan' Cedernaren eskutik

TTIPI-TTAPA

"Nola saldu denbora nahasietan" ikastaroa antolatu du Cederna Garalur Elkarteak Malerrekako Mankomunitatean. Ikastaro hau "Enpresa txikiendako prestakuntza, 2013 CED - 2014-1015 Aurrekontua" izeneko proiektuaren barnean kokatzen da. Proiektuak 27.500 euroko aurrekontua du, eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzak eta Nafarroako Gobernuak finantzaturik dago, Nafarroako Foru Komunitateko Landa Garapenerako 2007-2013 Programaren bidez.

Urriaren 1, 8 eta 15ean emanen da, 14:30etik 16:30era eta autonomoei eta mikroenpresei, bereziki merkataritza-sektorekoei zuzendua dago. Turismo eta zerbitzu sektorekoek ere parte har dezakete. Argibide gehiago: 948 625122 edo bidaso.aadmon@cederna.es.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

GIZARTEA → IRAILAREKIN BATERA

Udazken hasierako lanei lotuta dabilta ehiztariak

Onddo eta
Zizen
Kofradiaren
Eguna
ospatzekoa da
urrian

Mattin LARRALDE

Udazkenaren hasierarekin ehiztariak urteroko lanetan hasten dira. Inguruak garbitu, setoak moldatu, txabola garbitu eta biligarroak eta usoak noiz etortzen diren esperatu. Ez bada etortzen ere, beti geratzen da lagunekin ongi gosaltzeko aukera.

Onddo eta Xixen Eguna

Oraindik konfirmaziorik gabe baina badi-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Ehizturiak, postuak eta inguruak moldatzen eta garbitzen dabilta.

rudi aurten ere izanen dela Onddo eta xixen eguna. Antolakuntza lanetan ari dira eta data zehatza oraindik ez da jakitera eman.

Irisarritarrak Ameriketara bueltan

Garai batean Ameriketara artzain ibilitako herriar batzuk Estatu

Batuetara bidaia egin dute. Orain dela urte pila bat hemendik Estatu Batuetara joan zen jendea ogibide bila, gehien bat artzain aritzera.

Orain, urteak pasa ondoren, bueltatu dira beraien gazte denboretan lan egin zuten lekura, emazteekin batera. Herriko bi lagun ibili ziren Ameriketara artzain, Julian eta Luxio Irisarri anaiak, eta Pili eta Fermina euren emazteekin batera egin dute bidaia berezi hau.

Saioa gogoan

Azkenik oroitzapen bat Igantziko Saioa Teletxea neskari. Istripu batek eraman du gure ondotik. Nahiz eta igantzia izan, aunitz egoten zen Elgorriagan, lagun taldea bertan zeukalako eta jendeak ere ezagutzen zuelako. Berekada bat bere guraso eta ahizparendako. Bere irudia gure artean bizirik geratuko da.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzaillea
Jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 645 476

ORBELA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia - Mikel
Tel: 948 450 014
BEINTZA-LABAREN
orbela@beintza.com
www.orbela-beintza.com

Informazio-hitzaldia: BIOMASA
Egurrezko berogailu sistemak
INGURUNEKO ENERGIA ERABILI
Alhóndiga erakusketa gela, Doneztebe
Urriak 16, 18:30
Sarrera dohainik
tedesna
energias renovables
685907634 // www.tedesna.com

ITUREN

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 21EAN

Giro ederrean joan da Joaldunen Eguna

Herriko inauteriak kultur ondare izendatu ditu Nafarroako Gobernuak

Arkaitz MINDEGIA

Eguraldiak goiz goizetik lagundu zuen aurtengoan Joaldunen egunean eta giro bikaina izan zen. Goizean Ameztioko baserrietan itzulia egin zuten joaldunek eta trikitilariek, bertako xokoak joare eta trikiti soinuekin alaituz. Baserritarrek hitzaldi batzuk egin ondotik, herrira jeitsi eta herria alaitu zuten. Bazkaldu aitzinetik aizkora apustua jokatu zuten Oihan Larretxeak eta Ander Erasunek eta bertsolariek bertso ba-

tzuekin egin zuten mahaiari esertzeko gonbitea. Arratsaldean Aitzol Barandiaran eta Igor Elortzaren bertsoek eta Fantxisko akordeoilarien soinuekin mahai ingurua egin ondotik goizaldeko ordu tikiak arte segitu zuen bestak.

Nafarroako turismo intereseko bestak

Berri pozgarria hartu dugu azken egun hauetan, Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Harreman Intitutuzionalerako Departamentuak Nafarroako Kultur Intereseko besta moduan izendatu baititu Ituren eta Zubietako inauteriak. Irailaren azken astean jaso zuten agiri hori Ituren eta Zubietako udaletan.

Aurtizko bestak

Udako bestak Irurita eta Urdazubiko Salbatoreekin hasten dire gure inguruan, eta bukatzeko, udazkenean sartuta, beti helmuga Aurtizko San Martin bestak izaten dira. Gazteak burubelarri dabilta antolakuntzan. Aurten azaroaren 7tik 11ra izanen dira.

Aurtizko Ostatua

Ateak irekiko ditu laister Aurtizko Ostatak. Irailaren 16an bukatu zen lehiaketa deialdian eskaintzak aurkezteko epea. Hainbat interesatu izan dira eta, horien artean, eskualdeko hiru gaztek egin dako proposamena aurkeztu du Udalak eta beraiek irekiko dute ostatua.



ARGAZKIA: EKINE MINDEGIA ETA MIREN SEIN
Joaldunak harat-honat ibili ziren bere egunean.

Joskintza eta Pilates kastaroak

Udalak joskintza eta Pilates ikastaroak antolatuko ditu. Apuntatzeko epea irailaren 27an bukatu zen, baina norbait interesatua baldin badago, dei dezala udaletxera.

Javier Sein bikain

Udako oporren ondotik martxan jarri da Javier Sein txirrindularia eta nola gainera! Zegaman jokotutako karrera irabazi eta Euskadiko Openeko sailkapen orokorrean burujarri da.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

OSPAKIZUNAK → BEZPERAN ERE EKITALDIAK

Euskararen Eguna antolatu dute gazteek urriaren 12rako

Eskulangileak, musika, dantza, aizkora apustua, bertso bazkaria, haurrendako ekintzak eta beste ekitaldi ugari prestatu dituzte

Fermin ETXEKOLONEA

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, herriko gazteek Euskararen Eguna antolatu dute urriaren 11 eta 12ko astebururako. Egun handi larunbata izanen da,

baina ostiralean ere zenbait ekintza prestatu dituzte. Pintxo lehiaketa eta mintzaldia egingen dituzte eta mus txapelketa ere jokatu da.

Urriaren 12a izanen da egun handia. 10:00etan herriko artisauek beraien postuak jarriko ditute plaza inguruan. 10:30ean herriko trikitilariak kalejiran hasiko dira. 11:00etan jolaldunak. 11:30ean herriko Muxiko dantzariak. 13:00etan aizkora apustua: Raul Kastro eta Ezekiel Loiarde, Jose Antonio Loiarde eta Mikel Indakoetxearen kontra. 14:00etan bertso bazkaria, Aitzol Barandiaran



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Txoriburu, el Rapero Casero kantariaren kontzertuarekin abiatuko da Herriko Ostatu neguko programazioa

eta Oihana Bartrarekin. Goiz osoan gazta eta urdaiazpikoaren apustua egingen da. Gaztaren pisua eta urdaiazpikoa zer alturatan zintzilikatua dagoen asmatu beharko da.

Arratsaldean haurrendako tartetxoa izanen da. 15:00etan pelikula bat eskainiko da ludoetean. 16:30ean birziklapen tailerra izanen da Ines Gerekaren eskutik. Gero, txokolata izanen da. Ilunabarrean eta gauean musika izanen da Zesuma taldearekin. 21:00etan

gazta eta urdaiazpikoaren apustuko sariak emanen dira. 21:30ean karaokea izanen da, kantatu nahi duenarentzat. Musika akituta txistelehiaketa ere egingen da.

Herriko Ostatuan neguko programazioa

Neguko programazioarekin hasiko dira urriaren Herriko Ostatuan. Hilero, hilabetearen lehenengo asteburuan, kontzertuak izanen dituzte eta hirugarrenean,

dokumental baten proiektzioa. Dokumentaletan egileak ekartzen saiatuko dira, gaia azaltzeko eta solasalditxoak eskaintzeko.

Honela, ostiral honetan, urriaren 4an, "Txoriburu, el Rapero Casero" kontzertua eskainiko du 21:30ean.

Urriaren 19an, *Nork eramanez* sorkuntza? Kontuz eta Ateak Irekik egin duten Nafarroako Kutxari buruzko dokumentala eskainiko da eta Kontuzeko kide bat izanen da, 20:00etatik aurrera.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
ESKAINITZA: mantak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634

EZKURRA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 12AN

Umeentzako jaialdia antolatu du Malerreko Mankomunitateak

Ipuin kontalaria,
txokolatada,
jolasak eta
dantzak izango
dituzte

Fernando ETXEBERRIA

Urriaren 12an ume-entzako ipuin kontaketa, dantzaldia eta jolasak antolatu dira Malerreko Mankomunitateko euskara zerbitzuaren laguntzarekin. Arratsaldeko 5:00etan hasiko da saioa udaletxe-ko egoitzan, Karabi Karaba ipuinaz gozatzeko aukera izango da Ines Bengoa ipuin kontalariaren eskutik. Arratsaldeko 06:00etan txokolatada ume eta gurasoentzat eta ondoren ume-

entzako dantzaldia eta jolasak antolatu dituzte.

Manchesterko auto gidarien bisita

Urtean zehar, behin baino gehiagotan ikusten ditugu garai bateko automobilak Ezkurratik barna pasatzen. Ez gauden ohituak ordea, Barranka ostatuaren ondoan, halako auto zahar eta dotoreak apartatuta ikustera, baina berriki izan dugu aukera. Irailaren 17an, antzinako hamar automobil iritsi ziren eguerdi partean. Bertatik, 24 bidaiari jeitsi ziren, guztiak erretiroa hartutako ingelesak. Antza, turismoa egiten zebiltzan inguru hauetatik eta Ezkurrara



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Manchesterko gidariak bazkaltzen, ostatu atarian auto dotoreak utziak zituztela.

iritsitakoan, bertan gelditu, ostatuan bazkaldu eta inguruaz gozatzea

erabaki zuten. Gero Elizondo aldera jo zuten, eta Arizkundik barna,

lizegiko gaina igo eta gauean Donibane Garazira iritsi ziren.

UDALA

Natura 2000 sare ekologikoari buruzko bilera egin zen irailaren 24an

F. ETXEBERRIA

Natura 2000 sare ekologikoari buruzko bilera egin zen irailaren 24an. Ezkurrako alkatearen eskaerari erantzunez, Nafarroako Gobernuak teknikiari eta Ingurumen Kudeaketa enpresa publikokoak udaletxera hurbildu ziren argibideak emateko asmoz. Natura 2000 Sarea, Europa mailako sare ekologiko bat da, biodibertsitatearen kontserbaziorako eremu bereziak osatzen dutena. Bi helburu nagusi ditu, batetik espezie eta habitat mehatxatuak biziraupena epe luzera ziurta-

tzea, eta, bestetik, bioaniztasunean galera geldiarazten laguntzea Europar Batasuna osatzen duten estatuetan. Hala, 2000 urtean Nafarroako Gobernuak interesko lekuak zehaztu eta 42 guneko zerrenda osatu zuen. Haien artean, Belate, Bidasoa Ibaia, Orabideako erreka eta Arxuriko zoikaztegia, Baztan ibaia eta Artesiagako erreka eta Aritzakun-Urritzate-Gorramendi daude. 2005-2007 urteetan zehar, Nafarroako Gobernuak parte-hartze prozesu bat burutu zuen Belateko Batasunaren Intereseko Lekuaren Kudeake-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ezkurrako lur batzuk Belateko Intereseko Lekuaren barnean daude.

ta Planari buruz galdetzeko. Orain, Europar Komisioren aginduz, azalera berriak gehitzea beharrezkoa izan da, bertan natur balioak zeudelako. Ezkurrako lur komunal eta par-

tikularretako batzuk Belateko Batasunaren Intereseko Lekuaren barnean daudenez, mugen aldaketa honek zein aldaketa eragingo dituen argitzeko deitu zuen bilera alkateak.

GOIZUETA

GIZARTEA → AZKEN URTEETAKO OHITURARI EUTSIZ

Arantzara joanen dira mendizaleak larunbatean

Urriaren 19an ardo dastaketa antolatu du Umore Onak

7ak aldera buelta herri-
ra autobusean. Amaia
kafetegian eman zite-
keen izena urriaren 2ra
arte, txartela 18 euro or-
dainduz.

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala aurtan
urriaren 5ean egingen du
Umore Ona mendi tal-
deak Arantzako buelta,
goizeko 8etan herritik
abiatuta. Eguerdian
Arantzan bazkaldu eta
ondoren arratsaldeko

Ardo dastaketa

Urriaren 19an ardo
dastaketa antolatu du
Umore Onak. Lehenik
ardoaren inguruko hiz-
ketalditxo bat izango da,
ardoaren inguruan zer-
bait gehiago ikasteko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskal Jaiarekin itxi du denboraldia Iskibi kanpinak

Giro ederra izan zen Iskibi kanpineko Euskal Jaian. Ospakizunaren ondotik, denboraldia bukatutzat eman eta ateak itxi zituen maiatza bitarte.

eta ondoren dastaketa,
elkartean ardo berriak
jartzeko. Sarrera denei
irekia izango da baina
bazkide direnek baka-
rrik izango dute modua
ardoak aukeratzeko.
Mokadutxo bat egiteko
aukera ere izango da.

Guraso Elkartean aldaketak

Guraso Elkarteko ba-
tzordean aldaketak izan
dira ikasturte hasieran.
Maria Apezetxea, Kon-
txi Klaber eta Bidetxo
Huizik utzi egin dute eta

beraien ordeaz Mari Jo-
se Narbarte, Lurdes
Loiarte eta Elena Gar-
cia sartu dira. Hauek,
Josune Eizmendi, Arra-
te Etxeberria eta Nieves
Arozenarekin batera
osatuko dute ba-
tzordea.

ARESO

KIROLA → ARTZAIN TXAKUR LEHIAKETAK

Podiumaren hiru koskak ezagutu dituzte Antonio Alustizak eta bere txakurrek

Abuztuan hil
zen Txikiri
omenaldia egin
zioten Oñatin

Juana Mari SAIZAR

Podium batean hiru
postu izaten dira joko-
an eta hirurak ezagutu
ditu berriki Antonio Alus-
tizak. Nafarroako txap-
elketan lehenengo
postua lortu zuen, Eus-
kal Herrikoan hiruga-
rrena eta irailaren 22an,
Oñatiko txapelketa fa-
matuan bigarren pos-
tua lortu du. Lehia es-
tua izan zen bi lehenda-

bizikoen artean eta az-
ken momentura arte
ezin zen jakin nork esku-
ratuko zuen txapela.
Azkenean lau puntuko
aldearekin, Alustiza eta
Bat txakurra azpitxap-
eldun suertatu ziren.
Estreinaldi ederra izan
du Batek, Txiki txapel-
dun handiaren alabak
eta gustura dago Are-
soko artzaina. Antola-
kuntzak, gainera, ome-
naldi txiki bat eskaini
zion abuztu bukaeran
hil zen Txiki txakurrari.

4.400 euro Aralarren

Aralarko Erromeria-
ren inguruko informa-

zioa eman genuen aur-
reko alean eta orain ja-
kinarazi digutenez, aur-
ten 4.400 euro lortu di-
tuztela. Dagoeneko mi-
siolariari bidali zaio di-
ruea. Afrikako behartsu-
en izenean eskerrak
eman nahi dizkiete han
parte hartu zuten guztiei
eta nola ez, han eman
zuten laguntzagatik.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

26 umek hasi dute ikasturtea

Etxeko ttikienak ere hasi dira lanean. Ikasturteari
26 umek eman diote hasiera. Tartean, bi berri ha-
si dira Andoni Belaunzaran eta Naroa Belaunzaran.
Hiru irakasle ari dira lanaldi osoan eta horietaz ga-
in, beste batzuk laguntzaile gisara ere ari dira la-
naldi berezian. Ikasturte berrirako proiektu ugari di-
tuzte esku artean eta oso harro daude egi-
ten ari diren lanarekin.

Ba al dakizu

Aresoarren izengoitia zein den? SETOSOAK edo SETATIAK?

Galdera horren erantzuna jaso nahiko lukete Panpanoziri aldizkarian. Herritarren iritzia jaso nahi da horretarako eta hori egin ahal izateko ta-
bernan kutxatxo bat jarri da. Idatzi zure iritzia pare bat hitzetan eta bo-
ta papertxoa kutxan, animatu!!!



LEITZA

OSPAKIZUNAK → LARUNBATEAN ETA IGANDEAN

Aurrera eta Talo Egunak ospatuko dira asteburuan

JM BARRIOLA

Aurrera Elkartearen Eguna ospatuko da zazpigarren aldiz urriaren 5ean, larunbatean. 09:00etan BTT taldearekin bizikleta irteera eginen da estaziotik abiatuta. Ordu berean txistularien diana. 10:00etan Aurrerako Kirol Jokoen eskutik futbito partida plazan. 11:00etan Ginkana, zaldi ibilaldiak eta Aurrerako pilotarien saioa plazan. 12:00etan Aurrerako dantzarien saioa plazan. 13:00etan Incansables txarangarekin poteoa. 14:30ean Aurrerako bazkideen bazkaria karrapen. Bazkalostean Inguruxoa eta gero Incansables eta buruhaundiekin poteoa eginen da. 21:30ean luntxa eskainiko da Aurreran eta festarekin jarraitzeko, gizon orkestra Aurrerako atarian.

Talo Eguna, berriz, urriaren 6an izanen da. 10:00etan azokaren hasera (Leitzako talo egileak: Saralegi eta Villabona). Artisauek izango dira plazan eta baserri tresnerien erakusketa. Haurrentzako gudi ibilaldiak. 11:00etatik 13:30era ekintza gastronomikoak. Eskualdeko talo lehiaketa. Taloein egindako plateren erakusketa. Taloa egiteko tailerra (4-14 urte).

12:00etan Eateren aztarna ikuskizuna plazan. Ondoren herri kirolak: emakumezkoen giza-proba, 400 kiloko harria tiratzen.

Bertso eskola abian

Aurten ere bertso-eskolan hasteko aukera izango dute bertako gazte zein helduek. Leitzako lehen bertso-taldeak sortu zenetik 22 urte pasa dira eta orain dela 5 urtetik gaur arte helduen eta gazteen talde bana daude herrian.

Aurten ere bi talde horiei jarraipena eman nahi zaie, baina bertso-tan hasi nahi dutenek ere izango dute aukera. Horrela, eskola zein institutuko ikasleei eskola orduz kanpoko jarduera bezala eskainiko zaie guraso elkarteekin batera.

Bestalde, helduei eskaintza berezia egingo zaie: Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioen jarraipena egitea. Eskaintza edozein bertsozaleri irekia dago eta helburua Txapelketak asteburuan utzitako ale edo bertsoaldi aipagarrienak entzun, kantatu eta aztertzea da: doinu berriak, errima bitxiak, puntuak, bakarkako lanak, kuriositateak...

Taldea sortzeko, nahikoa izango da 5 lagunekoko talde bat sortzea.



ARGAZKIA: WWW.PLAZAOALAKIROLAK.ORG

Maratoi Erdi eta BTT martxa arrakastatsuak Plazaolan

450 lagunek parte hartu zuten Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatzen duen aurtengo maratoi erdian eta BTT martxa. Ehun bat lagun Andoainetik hasi ziren BTTrekin, Urto ingurutik 152 partaide laisterka eta Leitzako geltokitik Lekunberriraino 100 partaide, gehienak haurrak gurasoekin. Giro ederrean joan zen ekitaldia. Helmugan antzerki animazioa izan zuten txikienak. Plazaola naturbidetik egiten da proba hau eta jendearen gustokoa izaten da.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Film laburren lehiaketarako grabaketak egin ziren

Irailaren 21 eta 22ko asteburuan Josu Segura eta bere laguntzaileak, grabaketak egin zituzten gure herrian eta mendietan. Hain zuzen, herriko alde zaharretan, Plazaolako natur bidean, Ixkibarren eta Iberon. Gidoia beraiek landu dute, jendearen inkomunikazioaren arazoa azaleratu nahi dute eta bidenabar gure herria erakutsi. Nafarroako Gobernuak Turismo departamentuak bultzatu du lehiaketa hau eta beraien asmoa Europa osoan zabaltzea da.

Izena emateko mezu bat idatzi nafarroa.transmisioa@bertsozale.com edo j.leitza@gmail.com helbideetara; edo telefonoz deitu 669156736 edo 652155601 zenbakietara edo bertso eskolako kideren bati jakinarazi.

Udaltzain berria lanean

Udaltzain berria hasi zen lanean irailaren erdialdean. Badira bi urte albientea jubilatuta zela. Lanpostu hori betetzeko zegokion prozedura bete ondoren, irakazleak postua hartu-

takoan udaltzain izateko ikasketak burutu behar izan ditu, baita praktikak ere.

Dagoeneko hasia da lanean herrian. Oraingoz herri lanak egiten hasi da, eta pixkanaka bere ardurak betetzen joatea da asmoa.

ERRETIRATUAK → DONEZTEBEN BILDUKO DIRA

Bazkideen Eguna ospatuko du Arkupeak elkarteak urriaren 17an

48 bazkide
omenduko
dituzte

Fernando ETXEBERRIA

Urriaren 17an hitzordu garrantzitsua dute Arkupeak elkartekoek, Bazkideen eguna ospatuko baitute Donezteben. Aurtengoan 48 bazkide omenduko dituzte eta urteroko ohiturari eutsiz, meza eta kiroldegian egingen den bazkari eder batekin ospatuko dute eguna. Bazkalondoan dantzaldia izanen da. Aurtun, 50 eta 60 urte ezkonduarik eta 85 urte betetzen dituzten bazkideak ez ezik, 100 urte bete dituen Modesta Huarte beratarra ere omenduko dute.

Machu Picchu eta Kanariar Uharteetarako bidaiek ere laister izanen dira, eta antolakuntzatik jakinarazi dute lau pertsonentzako tokia dagoela oraindik. Norbaitek interesa edukiko balu, 948 450878ra deitu beharko luke.

LEZO ETA HONDARRIBIAN

Hara eta hona ibili dira irailean Arkupeak elkarteak. Etxetik hurbil dauden txokoez gozatuz batzuetan eta hegazkina hartuta besteetan. Irailaren

14an Lezo eta Hondarribira joan zen 175 bazkideko taldea. Lezon meza aditu eta aizkolari eta harri-jasotzaile saioaz gozatu ondotik, bazkari legea egin zuten Hondarribiako Ardora jatetxean. Ohikoa den bezalaxe, Josea-nek girotu zuen bazkalondoa eta zazpirak aldera autobusa hartuta etxerako bidea egin zuten guztiek.

CARLOMAGNOREN BIDEA

Irailaren 10 eta 11n berriz, elkarteak 99 bazkide, bi taldetan banatuta Carlomagnoren bidea egitera abiatu ziren Bilboko aireportutik. Luxemburgo, Bruselas, Gante, Dinan, Lieja, Frankfurt... ezagutzeko aukera izan zuten. Bidaia eroso, lasaia eta kultur aldetik oso aberasgarria izan dela adierazi dute bidaiariek.

MENDIZALEAK

SANTIAGORAKO BIDEAN

Elkarteak mendizaleek, bertalde, Santiagorako Bidean segitzen dute. Irailaren 24an egin zuten laugarren etapa, Gares eta Lizarra arteko 24 kilometroko bidea. Zirauki eta Lorcan gelditu ziren atseden hartzeko eta 14:00 aldera iritsi ziren Lizarrara.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goian Arkupeak elkarteak Lezon. Erdiko argazkian Carlomagnoren Bidean ageri dira eta behean, elkarteak mendizaleak Santiagoko Bidean, Gares eta Lizarra artean.

Bertako Kanpinean dutxatu eta arropak aldatu ondotik, bazkaldu eta arratsaldeko lauretan abiatu ziren etxerantz. Negua baino le-

hen beste bi etapa egitea aurreikusten dute: urriaren 11n Lizarra eta Urantzia (Los Arcos) artekoa eta urriaren 18an Urantzia eta Biana ar-

tekoa. Datorren urtean falta den bidearen erdia egingen da eta erritmo honi eusten badiete, 2015ean bukatuko dute ibilbide osoa.

BAZTAN

BESTAK → URRIAREN 5ETIK 7RA

Aizkolari eta arpanlarien arteko desafioa jokatu da Anizko bestetako igandean

Larunbatean paella eta bizkotxo lehiaketa eta astelehenean boneta jaurtiketa egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Hiru egunez egingen dituzte Anizko bestak.

LARUNBATA, URRIAK 5

- 11:00etan Ezkil jotzea, altxaferoak herriko trikitilariek alaiturik.
- 11:30ean haur jokoa.
- 12:30ean Baztandarren Biltzarreko argazki erakusketa.
- 14:00etan Paella lehiaketa eta bizkotxo lehiaketa. Bazkaria.
- 16:00etan Puzgarriak.
- 17:00etan Tirolina.
- 18:00etan Txokolate

jatea.

- 20:00etan Mutil dantzak.
- 20:45ean Baztan Zopak.
- 00:30ean Mexikortxo taldearekin mejikanak.
- Ondotik dantzaldia Santxotena akordeoi-lariarekin.
- Akitzeko xingar jatea. (larunbatean gan-torri autobusa ibiliko da herriz herri).

IGANDEA, URRIAK 6

- 11:30ean Imanol eta Irati trikitilariekin herriari itzulua.
- 12:00etan Meza Nagusia.
- 13:00etan otordua. Baztandarren Biltzarreko argazki erakusketa.
- 18:00etan desafioa: Bittor Elizagoien eta Arane aizkoran (8 kanaerdiko moztu) eta Andoni Xamail eta Gilermo Etxenike arpa-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herritarrek Iruñeko taldearekin batera dantzan eta goizaldeko xingar jatea, Anizen.

nean (50 korte).

- Ondotik, Gaztelu taldearen emanaldia.
- Akabailan afaria Mendiarte Kultur Elkarte-an.

ASTELEHENA, URRIAK 8

- 11:00etan mus txapelketa.
- 14:00etan zikiro jatea, Bixentek alaiturik.
- 17:00etan boneta jaurtiketa.

- 21:00etan Bixente akordioilariarekin dantzaldia.
- Ondotik xingar jatea eta suaren inguruan kantaldia.
- Akitzeko Gaixoa Ni.

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURIE LAGUN

JATETXEA-ERRETEGIA

MONTXO

OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

FLATER KOMBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

CITROËN

SANSIÑENA TAILERRA

%5 eko
DESKONTUA
olio aldaketetan

ttiipi txartela

BESTAK → PILARIKA BESTAK URRIAREN 11TIK 13RA

Mariatxiak eta kontzertuak izanen dira Gartzaingo besten egun handian

Herritarren Egunean boneta botatzea eta zikiro jatea izanen dira

TTIPI-TTAPA

Hiru egunera bildu dituzte Gartzainen Pilarika bestak, baina halere animazio ederra izanen du te ortziraletik igandera.

ORTZILERIA, URRIAK 11 BEZPERA ETA HAURREN EGUNA

- 12:00etan Txupinazoa eta ezkil jotzea.
- 14:00etan Haurren bazkaria.
- 16:00etan Kulki: Meatzaritzarekin zerikusia duten ekintzak eta jolasak.
- 16:30ean Mus zimizte.
- 18:00etan Txokolata-da.
- 21:30ean Baztan zopak trinketea (Txartelak urriaren 7ra arte salgai Fransene, Saioa eta Kortarixarren).
- 00:00etan Dantzaldia

GABENARA taldearekin.

- 6:00etan Zinger jatia.

LAUNBETA, URRIAK 12 PILARIKE ETA GAZTIEN EGUNE

- 10:00etan Dianak eta argisoinuak.
- 12:00etan Meza Aizteiko ermiten eta ondotik luntxe.
- 14:00etan Gazte bazkarie.
- 20:00etan LOSTAJUDOS DEL NORTE mariatxien emanaldie.
- 21:30ean Mutil dantzak.
- 22:00etan Afarie frontonian.
- 00:00etaik aitzin Kontzertuek: THE BASERRITARS eta SKABIDEAN taldeekin.

IGENDIA, URRIAK 13 HERRITARREN EGUNE

- 10:00etan Dianak eta argisoñuek.
- 12:00etan Boneta botatzea.
- 14:00etan Zikiro jatia (Txartelak urriaren 8ra arte salgai). Ondotik boletoen zozketa eta trofeo banaketa. Se-



ARGAZKIAK: ANA BELEN AZKARATEK UTZIAK

Bezperako Baztan-zopak eta Gartzaingo gazteak bestetan.

- gidan dantzaldia MIKEL SALABERRIrekin.
- 22:00etan Mutil dan-

- tzak.
- 22:30ean Luntxa eta ondoren gaupasa MI-

- KEL SALABERRIrekin.
- 03:00etan Gaixoa ni eta besten akabaila.

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAICOETXEA ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C - ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 816

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 - AMAIUR
www.mendialdea.com

ARMUA JATEXEA
T. 948 599 131
Zugarramulko errep. 3 km
URIZABE

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444
M. 629 659 583
ARIZKUN

FOTO MENA ELIZONDO
%10eko DESKONTUA kopia digitaletan
ttipi txartela

BAZTAN

GIZARTEA → BESTA BATZORDEAK, PLAZARA DANTZARA HERRI EKIMENAK ETA PLAZARA ATERA ZIRENEN IDATZIAK

Elbeteko mutildantzan gertatutakoak iritzi kontra jarriak ekarri ditu

Emakumeak sartzean gelditu egin ziren

TTIPI-TTAPA

Elbeteko bestetan mutildantza dantzatzera sartu zen Baztango alkatea eta gainerako dantzariak gelditu egin ziren. Gertakari horrek soka luzea ekarri du. Elbeteko herriak eta besta batzordeak alde batetik, Plazara Dantzara herri ekimenak bertetik eta plazarean sartu zirenek azkenik, euren iritziak azaldu dituzte.

Elbeteko herriak eta Besta Batzordeak diotenez, «zenbait presio eta dei telefoniko jasan behar izan ditu Plazara Dantzara Plataformaren aldetik», baina besten egitaraua osatzerakoan, «denen gustuak eta sensibilitateak isladatzen saiatu gara, mutildantzetan denek dantzatzeko aukera emanez». Hone-la, egitarauak hau zioen: Santa Kruz egunean, goizean, Elbeteko Mutildantzarien saioa. 21etan, Baztango Mutildantzari taldearen emanaldia, eta azkenik ordu-tegi ofizialean, mutildantzak denendako. Mutildantza mistoaren aldekoek ere begi onez ikusi omen zuten egitarauan zehaztutakoa. Gero gertatutakoaz, zera dio Elbeteko herriaren eta besta batzordearen idatziak: «Pertsona zenbait, ez dakigula partikularki edo norbaiten edo zerbaiten izenean azaldu ziren bestak izorratzera».

Elbeteko Herriak eta

Besta Batzordeak diotenez, «elkarbizitza errespetua eskatuz lortzen da baina, nola ez, aldi berean erabaki eta sensibilitate desberdinak dituztenenganako errespetua izanik, eta ez ikusi ditugun larderiak jarriera intoleranteekin, ezta inposizioaren bide-tik ere». Gertatutakoa sentitzen dutela aipatu ondotik, «datorren urtean saiatuko gara, uzten badigute, besta ederrak antolatzen» dio Bestetako Batzordearen eta Elbeteko herriaren idatziak.

PLAZARA DANTZARA HERRI EKIMENAREN ERANTZUNA

Plazara Dantzara Ekimenak erantzun egin die bi erakunde horien «akusazio larriei», ez duela inolako presiorik egin erranez: «taldeak egin-dakoa informazioa ematea eta eskatzea, galdetzea izan zen, inondik ere ez presioa egin-tea. Gaur egun norbait presioa jasaten badiu horiek plazetan libre salatu eta ez ikusiarena egin du eraso hauek gertatitzezela ahabidetuz».

Baztango Mutil Dantzarien taldea «bartzalea» dela dio ekimenak, «espazio publikoa-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Amaiurko gazteluko mugarria inauguratu dute irailaren 21ean

Amaiurko errebestetako ohiko ekitaldiekin batera, Gazteluko mugarriaren inaugurazioa egin da, 1512-2012 Nafarroa Bizirik elkartearen eskutik. Hain zuzen, Nafarroako erresumako gazteluak egon ziren leku guztietan mugarriak jartzea da elkartearen asmoa. Kalejiran abiatu zen jendetza Amaiurko plazatik gaztelu aldera, txistulari eta atabalarien laguntzarekin. Dantzariak, bertsolariak, musika ekitaldia eta kantariak izan ziren eta mugarria agertu zuten. Ekitaldiaren ondotik, zikiri-jatea izan zuten plazan, Mikel Salaberriren animazioarekin.

ren erabilera partikular eta pribatiboa egiten du, nesken parte hartzea saihesteko helburu garbiarekin». Elbeteko herriak instituzio ofizial moduan «jokaldi baztertzaila horretan parte hartzea kezkarria eta onartezina» iruditzen zaio. Modu berean, eguerdian Elbeteko mutil dantzariak «modu eskusiboan iaz hasi zuten dantzaldia agerian gelditu da neskek parte ez hartzea bertzela helbururik ez zuela. Dantzara taldekoa ez zen gizonezko bat sartu zenean dantzak lasai segitu zuen. Emakumezkoa sartu zenean berriz, alde egin zuten dantzariak».

PLAZARA SARTU ZIRENEN IRITZIA

Mutildantza herriarena dela eta pribatizatze-ko dagoen saiakeraren kontra daudela azaldu du prentsa aitzinean herri-ritar talde batek. Berai-ek ere zaindu, mimatu eta babestu nahi dute-la ondare kulturala den mutildantza eta guzi horregatik emakumeek ez dantzatzeko helburuarekin sortutako taldean sartu zirela Elbeten. Mutildantza ez dela gizonea bakarrik dio talde honek: «Mutil dantza herriarena da, denona, ikusle eta dantzaria, Zahar eta gazteena, gizon eta emaztearena, gure kulturaren ondarea

da. Eta hala denez gure ardura da babestea, mimatzea, zaintzea eta hori ezinezkoa da emakumeak, hainbatetan dantzen bizi iraupenaren eragile izan direnak, berriz diogu ezinezkoa da emakumeak baztertuta, emakumeak irainduta, emakumeen nahia mugatuta».

Taldeak dio ezin dela onartu herriarena den ondarea pribatizatzea eta pribatizazio horri gainera plaza publikoak eskaintzea. «Kolpatu eta iraindu, plazatik bortxaz atera gaituztenak ezin dira herriarena den ondarearen jabe eta zaindari bihurtu» diote idatzian.

OSPAKIZUNAK → XXVI. LEHIAKETA

Piriniar arrazako 240 behi azienda aurkeztu dira Elizondoko lehiaketara

Bibi Agirre zenari omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion

TTIPI-TTAPA

Aurten 26. edizioa bete duen piriniar arrazako behien espainiar estatu mailako lehiaketa (aurten ez da enkanterik izan) egin zen Elizondoko Merkaturako Plazan irailaren 21 eta 22an. Nafarroa eta Bizkaia azizendek lortu zituzten sari gehienak eta omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion lehiaketa hau eta piriniar arraza bulatzatu zuen Juan Migel Bibi Agirre zenari. Arizkundarraren anaiak, Julianek, ohorezko joarea jaso zuen Garbiñe Elizegi alkatearen eskutik.

Euskal Herrian hazten diren aziendak

izan ziren ikusgai Elizondoko Sari gehienak lurretako (Bizkaia) Jon Bikandik eta Arraitz-Orkineko Gregorio Iraolak eta Arraiozko Isabel Launagak jaso zituzten. Zehazki, arraioztarrak, 8 eta 12 hilabete arteko eta 12 eta 18 hilabete arteko urruxen lehen sariak eraman zituen.

Bi urte arteko zezenkoetan, lehen saria Erratzuko Juan Jose Iñarreak eskuratu zuen. Azizendak ezaugarri egokienak izan ziren, bururik onena Arizkongo M^a Isabel Agirrek aurkeztutakoa izan zen.

GASTRONOMIA IBILBIDEA

Hirugarren urtez egin diren Gastronomia ibilbideko jardunaldietan 22 jatetxek parte hartu dute aurten. Sari nagusia, eskaintza onena duen jatetxeari emanda-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Azienda lehiaketako saridunak, antolatzaileak eta udal ordezkariak, sariak banatu ondotik.

koa, Urdazubiko Montxo ostatuak eskuratu zuen. 40 kilo aretxe eta jardunaldia antolatu zuen Gourmet Imagerean

eskutik aholkularitza eta gastronomia argazki zerbitzua jasoko ditu. Elizondoko Futbolin ostatuak irabazi zuen

bustirik onenaren saria, Irurritako Olari jatetxeak egin zuen pintxorik onena eta Elbeteko Oñasak saldarik onena.

TURISMOA

Udako balantze baikorra egin du Balleko Etxeak eta turista kopurua aunitz igo dela aipatu du

TTIPI-TTAPA

Behi azienda lehiaketarena ez ezik, uda osoko balantze arras baikorra egin du Balleko Etxeak. «Kontuan izanda bizi dugun krisi ekonomiko larria, Baztango turismo sektoreak eutsi ez ezik, iazko emaitzak hobetu ditu» aipatu dute Maite Iturre eta Jon Elizetxe zinegotziek. Elizondoko Turismo Bulegoak aurten iaz baino askoz ere bisita gehiago hartu ditu: 2012ko uztailaren 1.279 lagun etorri baziren, aurtengo uztailaren 1.649 bisitari hurbildu ziren, hau da, iaz baino %28,93 gehiago; 2012ko

abuztuan 2.380 joan ziren informazio eske eta aurtengo abuztuan, berriz, 4.615 lagun, hau da, iazko ia bi-koitza (%93,91 gehiago, hain zuzen). Igoera nabarmen honen gibelan arrazoi ezberdinak daude, zinegotzien erranetan: «Baztanerak bai oportunitate bai egun pasa hurbildu diren pertsonen kopuruaren igoera, Turismo Bulegorako seinalizazioa aurten hobetu izana eta bi hilabeteetan zehar egunero irekita egon izana goiz eta arratsaldean». Jatetxeek ere ongi lan egin dutela aipatu dute, «garai batean bezala».



ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittoria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ZUGARRAMURDI

KULTURA → ZINEMALDIAN

‘Zugarramurdiko Sorginak’ filma estreinatu dute Donostian

Alfonbra gorriaren gainetik pasatu ziren zenbait herritar

Koro eta Margari

Halako ikusmina sortu duen “Zugarramurdiko sorginak” filma ikusteko aukera izan du gu hondarrean.

Irailaren 22an estreinatu zen Donostiako Zinemaldian, eta herritar batzuk han egoteko aukera izan zuten, udal ordezkariak barne. Aldizkarietan ikusten den be-

zala “glamour” haundiko zeremonia izan zen, alfombra gorriaren gainetik pasatuz eta guzti...

Argi izan behar da filmak ez duela deus ikus-tekori Zugarramurdin gertatu zenarekin, eta hori kontutan hartuta, filma bitxia, absurdoa eta dibertigarria da. Hori bai, abisatu behar da odola eta biolentzia dosi azkarki daukala, nahiz eta umore aldetik enfokatu izan. Filman ikusten diren “sorginek” ez dute deus ere ikus-tekori gure herriko sorginek.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

15 urteotan 3.000 kilometro egin dituzte Atxuriako mendizaleek.

15 urte, 3.000 kilometro

Aurten betetzen dira 15 urte “Atxuria mendi taldea” harat-hunat, eta mendiz-mendi ibiltzen hasi zenetik.

Hasierako urteetan jende aunitz mugitzen zen ibilaldi hauetan, 20-30 lagun. Gero umeak zirela eta bertze gisako egoerak, jende kopurua txikitu zen, eta gaur egun 15 lagun inguruko taldea bihurtu da, beti ere mendian ibiltzea gus-
tatzen zaion guztiari edekia dago. 15 urte hauetan 3.000 kilome-



Pena eta haserre ematen du karretera eta bide bazterretan ikusten den zaborra. Batzuk uste dute zikinkeria kotxeko leihotik kanpora bota eta desagertzen dela... Argazkian agertzen den zaborra kanposantutik Narkonekobordarainoko bide bazterrean bildua da.

tro oinez eginak ditutaldea, eta hori ospatzeko ator bereziak egin dituzte “K-3000” leloare-

kin. Horretaz gain, argazki erakusketa bat egiteko intentzioa ere badaukate.

URDAZUBI

GIZARTEA → IRAIL HASIERAN EGIN ZUTEN BIDAIA

Ameriketara bueltatu dira herriko bi artzain

A.Olaizola eta A.Barrenetxe

Duela mendeerdi bat Ameriketarat lanera joan ziren euskal artzainak, irailean Kaliforniaraino egin zuten bidaia. Beren senideak barne, denetara 81 lagun joan ziren. Los Angeles, Chino, Bakersfield, Fresno, San Frantzisko eta Chi-

kagoko aspaldiko xokoak bisitatu zituzten.

Haien artean hiru herritar izan ziren: Martin Jose Barrenetxe eta bere koñadua Pablo Olaizola, bere andrea Maria Luisa Zaldainenarekin.

Bidaia zoragarria izan omen zuten, eta to-



ARGAZKIA: ALIZIA OLAIZOLA ETA ANGELITA BARRENETXE

Pablo Olaizola, M^a Luisa Zaldainena eta Martin Jose Barrenetxe Ameriketara ibili dira.

kiak bisitatzeaz gain, hantxe duten familia eta

ezagun euskaldun aunitzekin egun goxoak

pasatzeko aukera izan zuten.

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN AZKEN 22AN

Urdazuriko guden komemorazioak poza eta haserrea sortu ditu herritarren artean

Lapurdi 1609 elkarteak ez du begi onez ikusi ospakizuna

Franck DOLOSOR

Gutitan ikusten den mundua bildu zen herrian buruilaren 22an Urdazuriko guden berrehungarren urtemugaren antzezpen egunean. Ez zen ez hor deus falta: Frantzia, Espainia eta Inglaterrako armadako soldaduak orduko uniformeekin, militar bat zaldiz ibilki, emazteak hilak zaintzeko... Karrika nagusian barna ibili eta Urdazuri bazterreko parkean borroka burrunbatsua antzeztu zen tiro eta ke frangorekin.

Lapurdi 1609 elkarteak ez du begi onez ikusten komemorazioa gisa hortan egitea orduko senpertarren sofrikarioa ez baita aski edo bate-re gogoratua izan bere ustez. 1813an, 70.000 soldadu pasa ziren Lapurdin eta zer nahi desmasia egin zuten gure herrian arto landak xehatu, etxeak erre edo berdin emazteak bortxatu, bertzeak bertze. Elkarteak galdetzen du militarren jantziekin agertzea ez ote den arbasoetaz trufatzea.

Antzezpena egin dutenek diote logistika sailik ez zela orduan eta herritarrek armada la-

gundu behar zutela eta badakite batzuetan bortxaz izan zela. Gogoan dute egoera arunt zaila jasan zela. Horregatik desfilea egiteaz gain, lore eskaintza ere egin dute Senpereko hilen oroitarriaren parean. Beren helburua ez zen bakarrik folklorea egitea jantzi eta danborrekin. Kritikak kontuan hartzen dituzte baina oroitarazten dute 1945eko armistizioa urtero ospatzen dela maiatzaren 8an eta orduan ere hildako frango izan zela alde guzietan. Lapurdi 1609 elkarteak galdetzen du nork onartuko lukeen Hitler eta Francoren jantziekin antzeztea Gernikako bonbardaketa...

EHLG eta herriko etxea eskuz esku

Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkarteak 2010ean ukan zuen 2.000 euroko diru laguntza itzuli beharko dio Senpereko herriari. Justiziak hori erabaki du prefetak laguntza horren kontra egin eta. Hala ere, EHLG eta auzapeza pozik dira 2012an bozkatu den dirulaguntza onartua izan baita. Lehen aldikoz, prefeturak ez du galdetu deliberoa baztertzea eta orain bi hilabeteko epea iragan baita behin betiko onartua da. Horrek



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Militarren jantziekin agertzea arbasoetaz trufatzea dela uste du Lapurdi 1609 elkarteak.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Berocoirigoin, Bessonart eta Etxegarai, agerraldian.

bidea idekitzen die bertze herriko etxeei ere. Oraindik goiti, edozein herriko etxek diru laguntza eman diezaiokie EHLG elkarteari. Michel Berocolrigoin presidentak biziki kontent agertu da auzi guziak irabazi baititu 2005ean Ainizan sortu zen egitura alternatiboak: auzi penala, fiskala eta baita ere administratiboa orain. Eskerrak eman dizkio Christine Bessonart au-

zapezari jazarpenaren gainetik pasatzen jakin izan baitu eta buru egin baitu "zuzena" iduritzen zitzaion bide horretan. Jean René Etxegarai herriaren abokatak estatua kritikatu du erranez biziki ahula agertu dela afera honetan.

Lurra eta etxebizitza

"Lur saldua betiko galdua" lelopean mani-

festaldi jendetsua egin zen Ibarrunen buruilaren 21ean. Manifestariak salatu dute urte guziz laborantzako mila hektarea galtzen direla eta Senpereko herriko etxeak bide bera segitzen duela etxeak erakitze baimenak ematen dituelarik berriki arte laborantzak baliatzen zituen eremuetan. Lurzaindia taldekoek gogoratu dute beren ustez 461 etxe hutsak direla gure herrian.

Selauru hustea

Urriaren 6an bigarren eskuko gauzen merkata egingen du eskola publikoko gurasoen elkarteak. Azokaren atean zabalik izanen dira goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte gazteluaren aparkalekuan.

SARA

OSPAKIZUNAK → BURUILAREN 7TIK 11RA

Eguraldi kaxkarra izan arren bestak politak izan dira

Gaztetxeko gauraldi moztortua ekitaldi bazterezina bilakatu da

Joana GERENDIAIN

Nahiz eta meteoak kaxkarra izan bestak politak izan dira. Igandean jende frango hurbildu da plazara joaldu-nak, karroak, ahate jo-koa eta herri kirolak ikus-tera. Astelehenean, 300 bat lagun hurbildu dira Sarako ikastolak anto-latutako zikirora; arra-tsaldean zaldi ikusgarri bat emana izan da fron-toina ondoko soro ba-tean, hor ere jende mul-txo polita hurbildu da. Arratsean Zazpiak bat

elkartek dantza ikusga-ri bat eman du plazan. Astearte gauean "idol" frango ikusten ahal zi-ren, erran dezakegu gaztetxeko gauraldi mo-zortua orain bes-tetako ekitaldi baztere-zina bilakatu dela! As-teazkenean jende anda hurbildu da trinketera komizara. Bestetan ze-har pilota partida fran-go jokatu dira bai pla-zan bai trinketean. Xo-ko finala Gregory Agui-rrek irabazi du; Euskal Herriko besten txapel-ketaren irabazlea Enda-ra (Sara)-Elissalde (Itxa-su) pareta izan da; PLE-KA trofeoa Ducassou-Waltaryk irabazi dute.

Kantu afaria

Urtero bezala "Sara-ko kantariak" elkarteak



ARGAZKIAK: JEAN POUYET
Giro ederra izan da plaza inguruan herriko bestetan.

kantu afaria antolatzen du Saran. Aurten, urria-ren 5 ean, larunbat gauarekin eginen da Lur berri gelan. Arratseko 8 etatik goiti zintzur bus-titzea izanen da eta on-dotik kantariak alaituta-ko afaria.

Urdazuriko guduen bigarren mendeburua

Aurten «Jakintza» el-karteak ekitaldi ainitz antolatu ditu gertakari honen inguruan. Honen kariatara, urriaren 6an, arratsaldeko 2:30etik



goiti Koralhandiako go-torlekua deskubritzea proposatzen du. Leku horretara ailegatzeko tren tikiak utziko ditu bisitariak toki batean eta 15 minutu ibili beharko da bisita lekuraino. Bi-sitak ordu bat iraunen du, tokiak aintzinetik erreserbatu behar dira.

Kirol emaitzak

Sarako kirolariak be-rriz hartu dute sasoina eta ongi. Esku baloiko seniorrak Hendaiaren kontra irabazi dute 12-13. Errubiko bi ekipek ere garaipena ezagutu dute, 21-0 erresebarentzat eta 23-9 lehenaren-tzat.



Venancio AZKARATE ALBERRO

Gartzainen, 2011ko urriaren 11n, 60 urte zituela
II. URTEURRENA

Aite, badakigu zauden lekutik laguntzen diguzula,
eta zu ikustea ezinezkoa bada ere,
segur gaude gure artean zaudela.

Jakintza zu betiko gure bihotzetan egongo zarela,
inoiz ez gara atzendiko zutaz, aite.
Muxu haundi-haundi bat
ama eta gure partetik.

EMAZTEA ETA ZURE SEMEAK



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458



EZKONTZAK

Jean Pierre Fontan eta **Barbara Lhoste**, Sarakoak, abuztuaren 31n.
Julien Trolliet eta **Christelle Ameztoy**, Sarakoak, irailaren 21ean.
German Terresos Lavin eta **Naiara Altzugarai Maia**, Lesakakoak, irailaren 7an.
Enrique Irazoki Eizagirre eta **Elixabete Etxeberria Irazoki**, Lesakakoak, irailaren 17an.
Iñaki Miren Goñi Maiz eta **Maria Gema Aiertza Irigoien**, Urretxu eta Lesakakoa, irailaren 21ean.
Joxema Barrenetxe Gamio eta **Ainhoa Altzuri Ordoki**, Erratzukoa eta Arantzakoa, irailaren 21ean.
Maria Mitxelena Irigoien eta **Mikel Iparragirre Etxartea**, Urdazubikoa eta Elizondokoa, abuztuaren 24an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Igoa Iturralde Elizalde, Berroetakoa, irailaren 9an.
Ainhoa Ballarena Ripa, Elizondokoa, abuztuaren 21ean.
Ines Berasateguy, Sarakoa, uztailaren 12an.
Margaux Baux-Riordan, Sarakoa, uztailaren 25ean.
Battit Bareyre, Sarakoa, uztailaren 26an.
Lenka Gulckers, Sarakoa, abuztuaren 21ean.
Oihan Babaze Leizagoien, Sarakoa, irailaren 7an.
Joan Ichuribehere, Sarakoa, irailaren 13an.
Alba Igoa Arretxea, Sunbillakoa, irailaren 13an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Kattin Irigoien, Sarakoa, uztailaren 16an, 88 urte.
Pierre Darboure, Sarakoa, uztailaren 8an, 80 urte.
Sabina Goienetxe, Sarakoa, irailaren 21ean, 88 urte.
Estefania Irigoien Larrea, Berakoa, irailaren 13an, 76 urte.
Saioa Telletxea Zubeldia, Igantzakoa, irailaren 17an, 23 urte.
Javier Otermin Arregi, Iruridakoa, irailaren 18an, 91 urte.
Matias Agerre Vergier, Urdazubikoa, irailaren 20an, 86 urte.
Micaela Izeta Elizalde, Elizondokoa, irailaren 20an, 88 urte.
Bautista Hernandez Inda, Almandozkoa, irailaren 18an, 78 urte.
Juan José Elizetxe Urrutia, Erratzukoa, irailaren 22an, 82 urte.
Faustina Sueskun Askunze, Elizondon, irailaren 24an, 99 urte.
León Tiebas Biurrun, Goizuetakoa, irailaren 23an, 78 urte.



BELTXI
ETZATTUGU
INOIZ AHANTZIKO
ZURE KUADRILLA



Beñat ETCHART VERDU

Urdazubin, 2011ko urriaren 6an
II. URTEURRENA

Zu joan zinen, momenturik ez dago denbora atzera joaterik, ezta ere zuri gehiago ikusteko aukerarik. Denboran pasatu ere gure artean zaude bizirik, ez baidago zeruan guretako zu bezalako izarririk. Maite zaitugu.

AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA



Saioa Telletxea Zubeldia

Igantzín, 2013ko irailaren 17an

Ez dakigu ongi ze erran, ez dakigu nondik hasi egoerari aurre egiten ordea, behar da ikasi. Segundo bakar batean, dena egin da nahasi baina bihotz bihotzetik, nahi dugu adierazi Zurekin momentu pilla, irri jolas eta grazi lurretik bertze mundura, nahiz distantziak distantzi: Muxu goxo bat Saioa, ezingo zaitugu ahantzi!

ZURE ELGORRIKO KUADRILLA

TXIRRINDULARITZA → BETERANOAK

Master mailako Euskal Herriko bi txapel Elizondora

Ion Zeberio senior mailan eta Patxi Meoki master50 mailan Euskadiko txapeldun

TTIPI-TTAPA

Galdakaon (Bizkaia) jokatu zen irailaren 15ean Euskal Herriko master mailako txirrindularitza txapelketa eta Elizondoko Ion Zeberio (Transbidasoa-Euromaster-Sinertecnic) senior mailan eta Patxi Meokik (AEL) master50 mailan txapela lortu zuten; Iñaki Villoria (Transbidasoa-Euromaster-Sinertecnic) Iruritarrak 3. postua lortu zuen master40 mailako txapelketan.

pelketan.

91 kilometroko ibilbide hasieratik ihesaldi saiakera aunitz egon ziren, baina bakarrik ere ez zuen lortu aitzinera egiterik.

Iñaki Villoria irurita-rra ihes eginda ibili zen, baina azkenean Portillo izan zen irabazle, bakarrik helmugaratuta. Portilloren gibeletik zazpikote bat helmugaratu zen, hauen arteko espritean Ion Zeberio 3. postua lortu zuen eta bere mailako txapela, hurrengo taldetxoan sartu zen Iñaki Villoria 13. postuan. Bertze taldetxo batean Meoki helmugaratu zen 25. postuan master50 mailako txapela eskuratu.

Transbidasoa taldeko Txutxin Fernandez 37., Joxe Mari Goia



ARGAZKIAK: ANE GABIRIA

Ion Zeberio goitian eta Patxi Meoki behegian, Euskadiko txapeldunaren maillotekin.

igantziarra 39., Joxe Angel Mitxelena lesakarra 44., Goienetxe lesa-

karra 70. eta Ibon Ur- tiaga 84. helmugaratu ziren. Luziano Mitxele-

na lesakarrak eroriko baten ondorioz frogatu behar izan zuen.

TXIRRINDULARITZA → MENDI BIZIKLETA

Euskadiko XCM txapelketa irabazi du Juan Carlos Garro beratarrak Lesakan

Master-40 kategorian nagusitu zen eta Joxemari Goia igantziarra bigarren izan zen master-30n

TTIPI-TTAPA

Irailaren 22an burutu zen Lesakan Beto

Gazte elkarteak antolatutako mendi bizikleta ibilaldia. Ibilbide ez konpetitiboan 201 txirrindularik parte hartu zuten, batzuk 40 kilometroko ibilbidean eta bertzeak 60 kilometrokoan. Baina horretaz gain bertze 80 bat txirrindularik parte hartu zuten Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatutako XCM txapelketan eta puntuak pila-latu zituzten proba ba-

karra falta duen Euskadiko Oponerako.

Konpetizioari dago-kionez, aipagarria da Juan Carlos Garro beratarrak Euskadiko txapelketa lortu duela XCM Maratoi txapelketan, Master40 kategorian. Azpimarragarria garai batean profesional izan zenaren emaitza, hamar urte baitzeramatzen konpetitu gabe. Baina txapelketa Lesakan jokatuko zela jakinda, go-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Garro podiumean, txapeldunaren maillot eta zapelarekin.

gor prestatu eta garai-pena eskuratu du, nahiz eta gorpila zulatua- rekin helmugaratu, Ope- neko sailkapen buruan dagoen Martin Goiko- etxea eta Tito Espada- ren aitzinetik.

Master 30 kategori- an ere, bertze bortziri- tar batek lortu zuen po-

diumera igotzea, Joxe- mari Goia igantziarra bi- garren izan baitzen, Ur- ko Munduateren gibe- letik eta Eneko Gonza- lezen aitzinetik.

Kategoria nagusian, elite mailan, Joseba Al- bizu izan zen irabazle eta emakumezkoetan Olatz Odriozola.

TRIATLOIA → IRAILAREN 14AN DONIBANE LOHIZUNEN

Ironbaskeko podiumera igo dira Bixente Igarzabal eta Ugaitz Garde

Hirugarren izan ziren, lesakarra Ironmanean eta gartzaindarra distantzia olinpikoan

TTIPI-TTAPA

Irailaren 14an burutu zen Donibane Lohizunen Ironbask probaren bigarren edizioa. Joan den urteko lehenbiziko edizioan, Ironman distantzian (3.860 metro igerian, 180 kilometro bizikletan eta maratolasterka) garaile izan zen Bixente Igarzabal lesakarra hirugarren izan da aurtengoan, nahiz eta joan den urteko mar-

ka 3 minututan hobetu (9h 53'07"). Gregory Verschuere frantziarra izan zen garaile (9h 30'20") eta bigarren izan zen Yann Le Dorze frantziarrak baino 21 minutu eta 27 segundo guttiago behar izan zituen. Donibane Lohizuneko podiumarekin bukatutzat eman du denboraldia Igarzabalek. Or-noko haustura baten ondorioz ezin izan zuen apirilera arte hasi, baina halere denboraldi polita egin du, laugarren sailkatu baitzen Altrimanean eta orain hirugarren Ironbask lasterketan.

DISTANTZIA OLINPIKOA

Baina lesakarra ez zen

Ironbaskeko podiumera igotzea lortu zuen eskualdeko kirolari bakarra izan. Ironman probaz gain, bertze hiru distantzian lehiatu ziren kirolariak eta Ugaitz Garde gartzaindarrak hirugarren postua lortu zuen distantzia olinpikoan (1.500 metro igerian, 40 kilometro bizikletan eta 10 kilometro lasterka).

Hirugarren gelditu zen gartzaindarra 380 partehartzaileraren artean. Irabazlea Martin Liebeck izan zen (2h 19'), bigarrena (ganden urteko irabazlea) Stephane Arraygo izan zen (2h 22' 02") eta hirugarren Ugaitz Garde izan zen (2h 25'01").



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bixente Igarzabal lanean eta Ugaitz Garde proba hasieran.

HERRI KIROLAK → IRAILAREN 14AN JOKATU ZEN BAIGORRIN

Nafarroa hirugarren izan da Zazpi Herrialdeen txapelketan

Gipuzkoa nagusitu da eta Lapurdi izan da bigarren

TTIPI-TTAPA

Zazpi Herrialdeen Ar-teko Kirol Txapelketa jo-katu zen irailaren 14an Baigorri (Nafarroa Be-herrea). Zuberoaren fal-tan, sei herrialde-tako ki-rolariak aritu ziren lehi-

an eta Gipuzkoa nugu-situ zen (56 puntu), La-purdi (54) eta Nafarroa-ren aitzinetik (53).

Hamar kiroletan lehiatu ziren sei herrialde-tako kirolariak: sokati-ran, txokor-biltzen, txinga-eramatzen, zaku-eramate lasterketan, harri-jasotzen, ingude-jasotzen, lasto-jasotzen, orga jokoan, arpanean eta aizkoran. Gipuzkoa bi kiroletan bakarrik na-

gusitu zen (lasto altxa-tzen eta txinga erama-ten), baina gainerakoe-tan erregularatasun han-dia erakutsi zuen. Inoiz ez zen laugarren pos-tua baino gibelerago sa-ilkatu. Lapurdik ere pro-ba bakarra irabazi zu-en, orga jokoa, baina bortzetan bigarren iza-tea lortu zuen.

Nafarroa izan zen pro-ba gehien irabazi zituen herrialdea. Koxkor bil-

tzen irabazi zuen Fernan-do Etxegarai beratarraren bitartez, baita ingu-de altxatzea Josetxo Urrutialeitzarrarekin, za-ku lasterketa Berriozar-ko taldearekin eta arpa-nean Barberena anaie-kin, baina bertze probe-tan gorabehera handiak izan zituen. Aizkoran bi-garren izan zen Jon Re-kondo leitzarra, harrija-sotzen hirugarren Unai Bertiz sunbildarra, orga

jokoan ere hirugarren izan zen Xabier Urrutia arra-izotarra (Herri Kirol Fede-razioko presidenteak parte hartu zuen, txau-peldun den Joseba Pe-trirena beratarraren orde-z), sokatiran laugarren Amaur eta Berriozarko tiralariak osatutako tal-dea, lasto altxatzen bos-garren Eneko Telletxea igantziarra eta txinga era-maten seigarren Igor La-saga beratarra.

SAILKAPENA

1	Gipuzkoa	56 pt
2	Lapurdi	54 pt
3	Nafarroa G	53 pt
4	Bizkaia	40 pt
5	Araba	31 pt
6	Nafarroa B.	28 pt

urriak 3 - 17

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Jardunaldiak



BAZTAN | 2013.10.04-13

Nafarroako hegaztien jardunaldiak Irurita eta Elizondon

Nafarroako Hegaztien IV. Jardunaldien barne, urriaren 13ra arte hainbat ekitaldi izanen dira: argazki-erakusketak, hitzaldiak, bisitak, errezeitaldiak, tailerrak...

Ospakizunak



DONEZTEBE | 2013.10.17

Arkupeak Elkarteko Bazkidearen Eguna

Urriaren 17an, jubilatuen elkarteak omenaldia eskainiko die 100 eta 85 urte bete dituzten bazkideei eta 50 eta 65 urte ezkondu egin dituzten senar-emazteei.

Ospakizunak



LEITZA | 2013.10.05

Leitzako Aurrera Elkartearen Eguna larunbatean

Besta eta kirola bateratuz, egitarau zabala prestatu dute Leitzan Aurrera Egunaren harira: jokoak, futbito partidak, pilota partidak, bazkideen bazkaria...

kutxen tailerra Merkatuko Plazan, 10:30ean.

Birziklatuz plastika

Urriaren 22tik aitzine-ra 5-12 urteko haurren -tzako birziklatuz plastika ikastaroa Arizkunenean. Izen-ematea urriaren 14ra arte.

IRURITA

Marrazki tailerra

Urriaren 6an marrazki tailerra Juan Varelaekin Jauregian, 10:30ean. Izen-ematea: dorreael-karte@gmail.com.

Hegazti askeen argazki tailerra

Urriaren 12an hegazti askeen argazki tailerra Jauregian, 08:00etan.

Ikuskizunak

ELIZONDO

Olerki eta musika errezeitaldia

Urriaren 5ean Patricia Furlong eta Edorta Amuruarekin, 23:00etan Irurita Jauregian.

Antzerkiak

ETXALAR

'Eguzkilore' antzezlan

Urriaren 19an Tik Tok taldearen eskutik, 19:30ean Kultur Etxean.

Kontzertuak

IRUÑEA

Iruñea kantuan

Urriaren 5ean Iruñea kantuan Angel Mariezkurrenak antolatuta. 20:00etan Baluartean.

DONEZTEBE

Malerreka kantuz

Urriaren 5ean eliz aitari abiatuta, 12:00etan.

SARA

Kantu afaria

Urriaren 5ean Lur berri gelan 20:00etan.

URDZUBI

Mendi abesbatza

Urriaren 12an Donez -

Erakusketak

BERTIZ

Diana Iniestaren lanak ikusgai

Azaroaren 3ra arte *La presencia de lo no dicho* izenburupean Diana Iniestaren monotipo, margo eta eskultura erakusketa Natur Parken, egunero 10:30-13:30 eta 16:00-18:00.

IRURITA

'Hegaztiak eta paisaiak' argazki erakusketa

Urriaren 13ra arte *Hegaztiak eta paisaiak* Iñaki Atxa eta Itxusi Elkarteko argazkilarien lanak, 19:00etatik 21:00etara Irurita Jauregian.

ANIZ

Baztandarren Biltzarrek 50 urte erakusketa

Urriaren 5ean eta 6an Baztandarren Biltzarren 50. urteurrenko argazki erakusketa frontoian.

Hitzaldiak

ELIZONDO

Naturako soinuak

Urriaren 4an *Naturako soinuak* hitzaldia Eloisa Matheurekin, Baztango Musean, 19:00etan.

IRURITA

Artea eta kontserbazioa

Urriaren 5ean Artea eta kontserbazioa hitzaldia Juan Varelaekin, Irurita Jauregian 19:00etan.

'Paisaiako etikak eta poetikak'

Urriaren 6an hitzaldia Joakin Araujorekin Jauregian, 18:30ean.

ETXALAR

Kontrabandoa hizpide

Urriaren 5ean kontrabandoari buruz hitzaldia Rosa Arburuarekin, Kultur Etxean, 19:00etan.

Ipuin-kontalariak

EZKURRA

Ines Bengoaren saioa

Urriaren 12an Ines Bengoa ipuin kontalaria udaletxean, 17:00etan.

DONEZTEBE

Birjinia Albiraren saioa

Urriaren 23an Birjinia Albira liburutegian, 17:00 eta 18:00etan.

Ikastaroak

ORONÓZ

Baratzeko landareen eta haziaren gaitz eta**eritasunen ikastaroa**

Urriaren 11n eta 12an baratzeko landareen eta haziaren gaitz eta eritasunen ikastaroa batzargelan. Izen-ematea urriaren 9a baino lehen, Barraskilo elkartearen.

ELIZONDO

Zortzikoaren hastapenak

Urriaren 14 eta 21ean Zortziko dantzaren hastapenak tailerra Eguzkilore Kultur Taldeak antolatuta, Arizkunenean.

Kabi-kutxen tailerra

Urriaren 12an kabi-

PROPOSAMENA

MALERREKA

Kultur Ibilbidea

Malerrekako Euskara Zerbitzuak eta Ezkurra, Oiz, Doneztebe eta Iturrengo Udalek Kultur Ibilbidea antolatuta dute. Hala, urriaren 12an Ines Bengoa ipuin-kontalaria Ezkurran izanen da, hilaren 19an Oiz haur eta familiendako emanaldia izanen da, urriaren 23an Birjinia Albira ipuin kontalaria Donezteben izanen da eta hilaren 31n Ruper Ordorika bakarlarik kontzertua eskainiko du Iturren.



tebeko abesbatza,
20:00etan Elizan.

ARIZKUN

Lesakako abesbatza

Urriaren 19an Lesaka-
ko abesbatzaren saioa,
19:00etan Elizan.

ELIZONDO

Orkoiengo abesbatza

Urriaren 20an Orkoiengo
abesbatza, 12:45ean
Elizan.

DONEZTEBE

Malerreka kantuz

Urriaren 5ean eliz ata-
ritik abiatuta, 12:00etan.

ZUBIETA

Txoriburu, el Rapero Casero

Urriaren 4an Txoriburu,
el Rapero Casero Herri-
ko Ostatuan 21:30ean.

Dokumentalak

ZUBIETA

'CAN, nork eraman ditu sosak?'

Urriaren 19an Herriko
Ostatuan, 20:00etan.

Ospakizunak

LEITZA

Aurrera eguna

Urriaren 5ean.

Taloaren eguna

Urriaren 6an.

ZUBIETA

Euskararen Eguna

Urriaren 12an.

DONEZTEBE

Arkupeak Elkarteko Bazkideen Eguna

Urriaren 17an.

Bestak

ANIZ

Amabirjinaren bestak

Urriaren 5etik 7ra.

GARTZAIN

Pilarika bestak

Urriaren 11tik 13ra.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Animalien kumeak

DELPHINE GRAVIER

Ttartalo, 2013

Animalien kumeak izeneko liburu ikusgarri ho-
nek munduko hainbat animalien kumeak
ezagutzeko aukera eskaintzen die etxeko ttikiei.
Ilustrazio errealista eta testu argien eta laburren
bitartez, habitat ezberdinetan bizi diren animaliak
aurkezten dira; baserriko abereak, basokoak, men-
dikoak, itsasokoak, ibaikoak eta oihanekoak.
Orrialde gardenen magiari esker, haurrak ikasi egi-
nen du ongi pasatzen duen bitartean. Delphine
Gravier idazlearen lana da, eta Aztiri Itzulpen Zer-
bitzuak egin du itzulpen lana. 4 urtetik goitiko nes-
ka-mutikoei zuzendua dago 80. orrialde dituen li-
buru hau. Delphine Gravier idazleak editore eta
idazle gisa lan egiten du gaur egun, gaztetxoent-
zako liburuak kaleratuz, eta hori baino lehen jo-
ko eta jolasak egiten aritu zen lanean.

Musika



Altxatu

ALTxATU

Gor, 2013

Altxatu Ibai Osinagak, Julen Abaurreak eta Iker
Arizek osatzen duten Irunberriko (Nafarroa) 14-
15 urteko hirukote gaztea da. Joan den urtean eman
zioten hasiera taldeari eta dagoeneko arreta deitu
dute egiten duten musika heldu eta aldi berean fres-
koagatik. Taldearen abestietan The Clash edota
Hertzainak kutsua antzeman daiteke. Beraien le-
hendabiziko lana da irailean argitaratu dutena eta
hamar abesti ditu, horietatik zortzi euskaraz, bat gazte-
laniaz eta bertzea ingelesez: *Musika Zainetan*, *Arreste-
ko Garaia*, *Gure Sustraiak*, *Altxatu Nafarroa*, *The Futu-
re is Unwritten*, *Botere Beltza*, *Galdezka Ari Zara*,
Txakurrek Ez Dute Zaunka Egiten, *No debes de luchar*
eta *Irunberri*. Gor disketxetik zera adierazi dute: «punk-
oi musikaren adar guztiak jorratzen dituzten hamaika
talde dago. Baina Altxatuk konbentzitu gintuen. Hauxe
baita adibiderik onena gaur egun gure geografia oso-
ko etxeabe-garaje-lonjetan lanean, entseatzen eta
orduak sartzen dabilzan talde andanaren artean».

Internet



Euskal aditza
jokatzeo tresna

ADITZAK.COM

Euskal aditz laguntzailea jokatzeo tresna bat da
Aditzak.com ataria, Garikoitz Knörren proiektu-
a. Adizki egokia aurkitzeo modurik errazena es-
kaintzen du. Edozein zalantza izanez gero, hauta-
tu modua, denbora, eta aditz mota, eta hortxe ager-
tuko zaizu bila ari zinen aditza, adibide-esaldi bate-
kin. Egileak azaldu duenez, «*aditzak.com*ek ez du
betiko taulak ordezkatzeko asmorik, bi gauza des-
berdin baitira, elkarren osagarri. Taulek paradig-
men eraketa erakusten dute. *Aditzak.com*, aldiz,
aditz jakin baten bila zabilzanerako dago pentsa-
tua». Batik bat euskara-ikasleei zuzendua dago,
baina baita euskararen profesionaleri ere, denok izat-
en baitugu zalantzaren bat edo bertz: idazle, itzul-
tzaile eta abarrek, euskaraz ongi jakin arren, lite-
keena da noizean behin zalantzak izatea aditzen
batekin. Pixkanaka, ezaugarri berriak gehitzen joa-
teko asmoa du egileak, hala nola, hikako formak
eta aditz trinkoak.

Nire aukera



Garazi ARRETXEAK
Gartzaingo gaztea

«Asteburuko planik ederrena pentsatu gabeko eskapada bat egitea da»

Normalean egiten ez
ditudan gauzak egi-
tea gustatzen zait denbo-
ra librean». Horixe aitortu
digu Garazi Arretxeak.
Zaletasun ugariko gaztea
da: musika aditu, irakurri,
bertsolaritza, mendian
buelta bat eman, astebu-
ruetan lagunekin atera...
Bidaiaztea ere «aunitz»
gustatzen zaio: «orain ar-
te ez dut bidaiazteko au-
kera aunitzik izan, baina
egindakoak aprobetxa-
tzen saiatu naiz». Mexi-
kora joan zenekoa gogo-
an du: «Maien hondarrak
ikustea aunitz gustatu
zitzaidan». Eta Poloniara
eginikoaz ere ez da ahaz-
tu: «Wroklawek atentzioa
deitu zidan». Gustura eza-
gutuko lukeena, berriz,
Hego Amerika, «arras
garbi» du hori. Asteburu-
ko planik ederrena «pen-
tsatu gabeko eskapada
bat egitea» da, «kotxea
hartu eta lekuak ezagu-
tzea, momentua eta kon-
painiaz disfrutatuz». Bes-
ta egiteko Baztandarren
Biltzarra du maiteena, bai-
na herriko bestak ere ez
ditu galduko. «Dudarik
gabe» zikiro jatea du bes-
tetatik gustukoena: «egu-
nik inportanteena da ge-
hienendako, giro berezia
izaten da eta horrek ez
du preziorik».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/100.000 €. 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- Aukera: 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. 943 217817.

LESAKA. 66m²ko pisua salgai herri erdian. Bitrasteleku. Garajea eta igogailuarekin. Berri-berria. 199.500 euro. 657 708866.

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxea salgai. 2 solairu eta bajua. 5 logela, egongela, bainugela osatua, sukalde eta sukalondoa. 663,29 m², baratzea eta 1.000 m²ko lur eremua. Prezio negoziagarria. 606 704615.

DONEZTEBE. Leitzaoko errepidean, 66an, 90 m²ko pisua salgai. Sukalde eta komuna mobleztatua. 3 logela eta egongela mobleztatu gabe. Bi balkoiekin eta hauetako

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

bat itxita. 115.000 euro
negoziagarriak. 650
149730.



LESAKA. Frain auzoan
baserria lur eremuarekin
salgai. 616 729549/667
213232.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

LESAKA. Pisua errentan
emateko. Sukaldea, komuna, 3 logela, egongela, trastelekua sukalde ondoan. Mobleztatua, sartzeko prest. 618 962791.

ERRATZU. 95 m²ko pisua errentan emateko. 3 logela eta trasteroarekin. Guztiz erreformatua eta

ekipatua. Hagitz argia. 390 euro. Deitu konpromisorik gabe. 661 017276.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESAKA-BIDASOA. Pisu edo etxe tiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. 636 777478 (Deitu 16:00etatik aitzinera).

LESAKA. Pisua errentan hartu nahi da. 350 euro ordaintzeko prest. 647 233690.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. Lur azpiko garaje itxia salgai Eitzeta plazan. 646 774117.

LESAKA. Otsango auzoan pabiloia salgai. 225m² eta 6 metroko altuera. Ko-

txe batentzako aparkalekua atean. 670 041161.

LANA

eskariak

Emakumea interna bezala lanean aritzeko prest eskualde osoan (etxea garbitu, sukaldatu, pertsonak zaindu...). Esperientziaduna, berehala hasteko prest. 608 655199.

BAZTAN, MALERREKA, BORTZIRIAK. Interna bezala pertsonak zaindu eta etxea eramateko emakumea prest dago; esperientziaduna eta erreferentziekin. 693 965208.

Josteko lanak egiten dira: dobladilloak, botoiak, kortinak... 606 880428.

LANA

eskaintzak

ZUGARRAMURDI. Herriko Etxeko Ostatuan

zerbitzaria behar da. Emakumezkoa edo gizonzkoa. Euskaraz eta frantsesez dakiena. Larunbat eta igandetan lan egiteko. 948 599482.

Etxalarko Benta hotelen **administraria** behar da egun erdiz lan egiteko. Curriculum hotelera eraman edo info@etxalar.com helbidera bidali.

BERA. Ibardinen garbiketa eta sukalde laguntzaile bezala lan egiteko neska behar da. Frantsesa dakiena. 948 630311.

MOTORRAK

salgai

Hyundai I30 1.4 GLS FDE Confort CV 1396, grisa, salgai. 2009koa. 36.000 km. Gasolina. 6.500 euro. 948 581406/696 079785.

ANIMALIAK

salgai

3 urteko behia salgai, suitzar arrazakoa. 619 116995.

12 ardiren eskubideak salgai. 650 589804.

DENETARIK

salerosketak

EZKURRA. Akazia-pike-teak salgai. 600 699266.

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. 659 867287/ 699 461394.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Irailaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 43 € (=)

Zerri gizena
1,503 € kiloa. (-0,030)

Zerramak:
0,880€ Kg/bizirik. (-0,010)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,31
1.koa 4,05
2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,37
1.koa 4,09
2.koa 3,95

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 135,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 155,00
idixkoak 165,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,70/2,92
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,30/8,40
8-10 kilokoak: 6,90/7,60

ORONOZ. Egurra xehe-
tua salgai. Pagoa eta hari-
tza. Etxera eramanen da.
☎676 242520.



Egoera oso onean dau-
den **bi altzari** salgai, egu-
rrezkoak biak. ☎660
870536.



Sagardoa egiteko **tola-
rea** salgai. Ezaugarriak:
tolare karratua eta honen
oina altzairu herdoilgai-
tza (acero inoxidable).
Egoera onean eta hagitz
praktikoa. ☎696 542056.



Kaja registradora sal-
gai, fakturak egiteko ma-
kinarekin. Ostatu bateko
altabozak eta **ekipoa** ere
salgai. ☎667 796439.

Hiru ahotseko Pigini **tri-
kitixa** salgai. Berri-be-
rria. ☎948 450313.



ARANTZako UDALA


**Arantzako Udalaren Arau Subsidiarioen
ordenantzetako aldaketa xehaketa.**
Hasierako onespina

Arantzako Udalak, 2013ko irailaren 5ean egin osoko bilkura arrun-
tean, hasiera batean onetsi zuen Arantzako Udaleko Arau Subsidi-
arioen barnean dauden Eraikinei buruzko ordenantzetako 39.artiku-
luaren aldaketa.

Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74.1.a) artikuluan ezarri-
takoari jarraituz, espedienteak jendaurrean egonen da urriaren 20ra
arte, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkez daitezten.

Arantzan, 2013ko irailaren 16an
Alkatea, Jaime ITURRIA MITXELENA

**Gazteentzako ohea eta
altzaria** salgai. Egoera
eta prezio oso onean;
ohea 105 cm eta 3 kajoj.
☎626 097128.



DENETARIK zerbitzuak

Diana Iniestarekin ikas-
taroak urritik maiatzera.
6-12 urte bitarteko
haurrentzako: 1. Ongi
portatu! (psikologia eta
arte); 2. marraztu eta

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordut
☎ 948 272011 (RUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urutia 42-2.D - ELIZONDO

pintatu (teknika desber-
dinak) eta 3. ingeles ikas-
taroa. 12 urtetik goitiko
gazte eta helduentzat pin-
tura eta marrazki ikasta-
roa. Begiratu ordutegiak.
<http://pintayrepinta.blogspot.com>,
[dianainiesta@
hotmail.com](mailto:dianainiesta@hotmail.com) edo 948
453478.

Yoga ikastaroa Beran.
Astearte eta ortzegune-

BAZTAN MOTOR S.L.

TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA

Orain Quad, ATV, UTV, Scooter eta Boogyak
lanerako eta aislarako


2.100€


9.495€


6.695€


Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55

DONEZTEBEKO

AVIA GASOLINDEGIA

**10.000€
IRABAZI**

AVIA gasolindegia
guztien artean
10.000€ko san bat
eta bertz
SARI TTIKI AUNITZ
zozketatzen ditugu*

Promozio baldagarria
2013/09/26tik
2013/10/29ra

*20€-ko erosketa edo
errega-boteldi bakoitzeko,
10.000€ irabazteko zozketan
parte hartzeko zerbaki bat
lortuko duzu.
Prestatu Club Avia-rekin
irabazteko!
Informazio gehiago:
Doneztebeko Avia Gasolindegian

Gainera,
CLUB AVIA txartelarekin
%2 gasolio eta gasolinan +
%5 dandako produktuetan

tan, 08:30etik 10:00eta-
ra eta 19:00etatik
20:30era. Lehenengo kla-
sea doan. Ariketa fisiko-

ak, oreka emozionala eta
arnasketa ariketak. Erla-
jazioa eta meditazioa.
☎627 395245.



**V. Pintxo Lehiaketa
DONEZTEBE**
Apirilak 30, irailak 1

**V. Concurso de Pintxos
SANTESTEBAN**
10 de abril, 1 de mayo



HILABETE HONETAKO
ESKANTZA

85€

50 kartel A3 (30,3cm x 42,6cm)

Koloretan
135g
Diseinua + inprenta + garraioa
BEZa barne
Epea: 10 lan egun



Koordinatzaile bidea, 7 - 1 | 31770 LESARA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez

Erratzuko **HARITZ ITURBURUA** JAUREN 8 urte bete ditu irailaren 14an. Zorionak Naroa, Enaitz eta bereziki Iker anaiaren partetik. Muxuak.



Elizondoko **NINBE URROZ FERNANDINOK** urtea bete du irailaren 26an. Zorionak zure lehenengo urtebetetze egunean. Denok maite zaitugu! Muxu potolo bat etxekoan partetik.



Lesakako **BEÑAT eta IZARO ZELAIETA** EGIAK 5 eta 2 urte beteko dituzte urriaren 8an. Zorionak eta muxu haundi bat Lezo eta Lesakako familien partetik.



JARE MAIA AROTZENA gure sorgin tikiak 2 urte beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak eta muxuak familieren eta bereziki Olatzen partetik.



Igantziko **UNAX URTXEGI RODRIGOK** bere bigarren urtea bete du atxiki Migelen egun haundia den San Migel egunean. Zorionak eta mila muxu etxeko bi xaltxeroei! Pastel eder baten esperoan gelditzen gara.




ITSASO BALLARENA RIPA 3 urte bete ditu irailaren 30ean. Zorionak pixpirrintxo eta muxu haundi bat familia guztiazen partetik. Aunitz urtez polte!!



Pasa den abuztuan **MAIALENEK** 5 urte bete zituen eta **AINHOA** jaio zen... Ongi etorri gure etxera **AINHOA** eta zorionak eta muxu potolo bat zuretzat, **MAIALENEK**, etxekoan partetik!



NAHIAK 2 urte bete ditu irailaren 11n. **ENAITZ** 9 urte bete ditu irailaren 23an. **DUNIAK** 18 urte bete ditu irailaren 27an. Zorionak hiruei Sunbilla eta Berako familien partetik.



Igantziko **ENEKO eta NAHIA** ALMANDOZEK urriaren 2an 2 urte eta azaroaren 21ean urtea beteko dute. Zorionak familia guztiazen partetik.



Lesakako **JARE MAIA AROTZENAK** 2 urte beteko ditu urriaren 5ean. Aunitz urtez eta bina muxu familia osoaren eta bereziki Orti, Lexuri, Elorri eta Aiert lehengusuen eta Ane lagunaren partetik.



Narbarteko **KAR-MEN LARRABURU** GAZTANBIDEK urriaren 1an 94 urte bete ditu. Zorionak etxekoan eta bereziki Ugaitz, Arene eta Intza birbiloben partetik.



Aunitz urtez **USOA!** Ongi ongi pasa eguna eta badakizu lankideak zeren esperoan egonen garen, ez? Muxu haundi bat!




Narbarteko **UGAITZ SALABERRI** BERTZEK 4 urte bete ditu irailaren 25ean. Segi beti bezain alai eta langile. Muxu haundia amatxo, Arene eta bereziki aita txoren partetik. Zorionak *boñito!*

Gure **INTZA BERTIZ URRIZAK** urriaren 17an urtea beteko du. Zorionak eta muxu bat Narbar-teko familia eta bereziki Ugaitz eta Arene lehengusuen partetik.



Zauden tokian zaudela
sar zaitetz mugikorrarekin
www.ttipi.net edizioan



Koskontako bidea. 7 - 1 | 31770 LESAKA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

EGUTEGIAK



Koloretan bi aldeetatik
300g
Diseinua barne
Inprenta barne
Garraioa barne
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

250		61€
500		65€
1000		70€

* ERREDU GEHIAGO ERE EDITEN DITUGU



ttipi-ttapa
Koskontako bidea, 7 - 1 31770 LESAKA | 948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

Azkenean, harpidetza baino merkeagoa da **TTIPI TXARTELA**




- Aldizkaria doan
- 44 dendetan deskontuak
- Hamabostero zozketa izugarriak
- %25eko desgrabazioa errentaren aitortpenarekin

TTIPI-TTAPAren urteko kuotak **34euro** balio du.
TTIPI TXARTELA dutenek, **30euro** pagatuko dute urtearen azkenean,
Errentaren Aitortpenarekin 10euro itzuliko baitzaie

%10
% 8
% 5
OPARIAK
ALDIZKARIA
BAZTAN
MALERREKA
BORTZIRIAK
LEITZA

Autoak eta biaketa talerak | Auto-eskoiak | Argazki-dendak | Aropea-dendak | Bihl-dendak | Estetika Zentruak | Ebejeresnak | Kirol-dendak
Haurren gauzen dendak | Lantzeriak | Liburu-dendak | Nutrizioa eta dietetika | Opari-dendak | Optikak | Pertsonak | Tindategiak | Zapata-dendak

ttipi txartela

ttipi-ttapa

PIL IRIARTEA IGARTZA
72675333-G
04/2014
123456

**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58

Informazio gehiago: **telefonoan**
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidela 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

deSKONTUak



BERA | %10 matrikulazioa

FANTXIKE

ELIZONDO
%10, 30etik gorako gastuan

Amaia
ludi eta estremo zentrua

DONEZTEBE | %5 kosmetikan %10
oparitan 50etik gora. Promozioetan ez

Agara
kirolak

BERA | %5 kirol artikuluetan

oreka

nutrizioa eta dietetika
belardenda

LESAKA
%5 kontsulta eta produktuetan

jaione tindategia

DONEZTEBE
%10, 12etik gorako gastuan

zozKetak

598 ALEKO IRABAZLEAK

1- KAMISETA BAT | Onddo ta punto
M^a Pilar Lasaga | **SUNBILLA**

2- MARTIKO LOTEA

Jone Jauregi | **AMAIUR**

3- 2 SARRERA | Hendaia finalaurrekoak.
Bertsolari Txapelketa nagusia.

Kalet Itoiz | **ERRATZU**

4- 2 LIBURU | Ibaizabal argitaletxeak

A Elkarte | Maribel Iribarren | **ERRATZU**

A Elkarte | Lorena Trantxe | **ELIZONDO**

5- GARTXOT DVDa | Elkar argitaletxea

Joana Oteiza | **DONEZTEBE**

6- 2 SARRERA | Aquarium

M^a Teresa Golenetxe | **BERA**

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



1

2 SARRERA

Zugarramuridko Sorginen lezeak
www.turismozugarramurdi.com



2

2 SARRERA - HENDAIA
Bertsolari Txapelketa Nagusia
www.txapelketanagusia.eu



3

2 LIBURU
Erein argitaletxea
www.erein.com



4

2 LIBURU
Ttartalo argitaletxea
www.ttartalo.com



5

2 SARRERA
Aquarium
www.aquariumss.com



6